IRAKURKETA

Edurne VELEZ DE MENDIZABAL LOS ARCOS

LA COMPRENSIÓN LECTORA EN EDUCACIÓN PRIMARIA/IRAKURRIAREN ULERMENA LEHEN HEZKUNTZAN

TFG/*GBL* 2013

upna Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria/ *Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

IRAKURRIAREN ULERMENA LEHEN HEZKUNTZAN/ LA COMPRENSIÓN LECTORA EN EDUCACIÓN PRIMARIA

Edurne VELEZ DE MENDIZABAL LOS ARCOS

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante
Edurne VELEZ DE MENDIZABAL LOS ARCOS

Izenburua / Título
Irakurriaren ulermena Lehen Hezkuntzan

Gradu / Grado
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a
Luis Iza Dorronsoro

Saila / Departamento
Psikologia eta Pedagogia/ Psicología y Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico
2012/2013

Seihilekoa / Semestre
Udaberria/ Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatzen duena, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau esaten du: "ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu honek; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psikopedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicuma daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen diren. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren zehazten ez duenez, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, hiru moduluetan gaitasunak dituela erakustea; hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean; horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluan landutako zenbait esparru argi islatzen dira. Gizarte antolaketari eta hezkunza erakundei dagokienez, hezkuntza sistemako egitura kontuan hartu da, Lehen Hezkuntza aztertuz. Aniztasun kulturala ere, momentu orotan kontuan hartu da eta ikuspuntu horretatik garatu da lan guztia. Argi dago hizkuntza gaitasuna gehien landu den esparrua izan dela, lana idatziaren ulermenean oinarritu baita, eta hori da hizkuntza gaitasunaren alorretako bat hizkuntzak pisu handia izan du, beraz. Bestalde, esan beharra dago gizarte, familia eta hezkuntza inklusiboa oso presente egon direla praktikako atalean egindako proposamen ezberdinetan ikus dezakegun bezala. Momentu guztietan kontuan hartu dira familia eta eskolaren arteko harremanak, eskola inklusiboari ere, garrantzi handia emanez. Amaitzeko esanen dugu, irakaslearen lanak ere pisu handia izan duela. Lan osoan zehar irakasleen ikuspuntua presente egon da, eta irakasleentzat egokiak izan daitezken proposamenak egin dira. Hoztaz, esan dezakegu psikologia, pedagogia eta soziologiarekin harremana duten oinarrizko edukiak landu egin direla.

Didaktika eta diziplinako moduluei dagokienez, lehenago aipatu dugun bezala, argi dago hizkuntzarekin lotutako edukiak landu direla, baina momentu guztietan ikuspuntu didaktikoa kontuan hartuz, bai hizkuntzaren didaktika baita literaturaren didaktika ere. Aspektu hau, praktikan jorratutako ataletan eta berrikuntzen atalean ikus daiteke.

Alde batetik, Practicum moduluetan ikasitako eduki asko islatzen dira lan honetan. Lehenengo mailatik gaur egun arte izan ditugun eskola praktika guztietan ikasitako edukiak daude, baina aipatzekoa da, azkeneko praktikek eragin handiagoa izan dutela, hauetan irakurriaren ulermenak duen garrantziaz ohartzeko aukera izan dudalako eta eskoletan benetako lehentasuna duen gaia dela argi ikusi dudalako. Hobekuntza plan gehienetan agertzen den atala da.

Bestalde, amaierako proiektu hau burutzeko lehenago ezagutzen ez nuen gai baten inguruan praktikaldi txiki bat egiteko aukera izan dut : “bikotekako irakurketa”. Bertan jasotako informazio eta ezagupen guztiak ahalik eta hobekien islatuta daude lan honetan zehar. Praktikan ikasitako kontzeptu asko ikus daitezke, beraz.

Pedagogia Terapeutikoko aukerako moduluan landutako esparru askorekin dauka harremana lan honek, lehenago aipatu dugun moduan, psikologiarekin duen lotura nahiko handia baita.

Irakurketa prozesu ezberdinak aztertzen dira, zailtasunen atalean batez ere. Irakurketarekin lotura duten zenbait nahaste landu egin dira, dislexia batez ere.

ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta izan behar dutela. Gaitasun honen lorpen maila erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Tipos de texto”, “praktikaren bi jarduera” eta hurrengo atalean aipatzen den derrigorrezko laburpena

Laburpena

Irakurriaren ulermena gai nagusitzat hartuz, hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna da proiektu honen abiapuntua. Irakurketaren garrantzia ukaezina da, hezkuntza sistema osoan eragiten baitu. Irakurmena curriculumaren arlo guztietan sartzen da eta eskolako jarduera osoa hezurtzen du ardatz gisa. Hori dela eta, gaitasun honi berariazko garrantzia ematea ezinbestekoa da. Lana atal ezberdinetan banatuta dago.

Lanari zentzua ematen dioten oinarri teoriko batzuk kontuan hartu dira: irakurketaren testuinguru ezberdinak eta hauek Lehen Hezkuntzan duten eragina, irakurketa prozesua, testu motak …

Marko teoriko hau momentu orotan alfabetizazioarekin erlazionatu da, hau baita gaur egun hezkuntza sistemako eskola gehienek dituzten erronka eta helburu nagusia. Horregati**k,** eskola horietan lantzen ari diren hobekuntza planak eta berrikuntza motak aztertu dira, bikoteka irakurtzearen programa eta honek irakurriaren ulermenean duen eragina, batez ere.

Amaitzeko esan beharra dago lan osoan zehar, pedagogia eta hezkuntzaren psikologiaren alderdiak, didaktika esparruak eta praktikaren alor ezberdinak kontuan hartu direla, errealitatera hurbiltzeko helburuarekin.

Hitz gakoak: irakurketa; lehen hezkuntza; ulermena; marko teorikoa; berrikuntzak.

Abstract

The essence of this project is to deal with reading competence through reading comprehension. It is worth recognizing the importance of reading since it concerns to all the teaching system: it appears in all the subjects defined by the curriculum as the way to organizate all the learning processes.

This project is divided into different parts. First of all there is the theoretical basis of the investment refering to different reading contexts and the influence they have into Primary School, reading processes and different kinds of texts. Then, this theoretical frame has been connected with the daily work of schools due to literacy is one of the main aims of this institutions. In this aspect, improvement plans have been researched, specifically the "Reading in pairs" programme, and the impact it has on reading comprehension.

Finally, it is necessary to remark that certain aspects such as pedagogy, teaching psychology, didactics and different fields of practical work had been taken into account with the aim of bringing this piece of work closer to realia.

Keywords: reading; primary education; comprehension; theoretical frame; innovation

Resumen

Priorizando la comprensión lectora como tema principal, la competencia de la comunicación mediante la lengua será el punto de partida de este trabajo. La importancia de la lectura es innegable, puesto que afecta durante todo el sistema educativo, ya que lo encontramos en la mayoría de los apartados del Currículo. Debido a ello, es imprescindible darle la importancia que realmente tiene a este tema. El trabajo esta dividido en diferentes partes. Para comenzar se trabaja con un marco teórico en el que encontramos, entre otros aspectos; las diferentes realidades y situaciones de la lectura, los procesos y los tipos de texto entre. Este marco teórico está relacionado en todo momento con la situación que hoy en día viven la mayoría de las escuelas y con la importancia que tiene en ellas la alfabetización, siendo éste uno de los aspectos más importantes y trabajados. Por esta razón se han examinado los diferentes planes de mejora e innovaciones que hoy en día se llevan a cabo para trabajar la comprensión lectora, centrándonos en la lectura en parejas. Es importante mencionar que durante el trabajo se han utilizado diferentes aspectos de la psicología y pedagogía en educación, tanto como la didáctica y diferentes ámbitos prácticos, teniendo siempre presente el objetivo de acercarnos todo lo posible a la realidad.

Palabras clave: lectura; educación primaria; comprensión; marco teórico; innovación.

Aurkibidea

1. Aurrekariak eta helburuak 1
2. Irakurketaren esparru teorikoa 2
2.1. Egoerak 3
2.2. Prozesuak 5
2.3. Testu motak 10
2.4. Arintasuna irakurketan 16
2.5. Ozenki irakurtzen 18
3. Garapena 20
3.1. Estrategiak 20
3.2. Berrikuntzak 28
3.3 Zailtasunak 45
4. Praktika 54
4.1 Franzisko Deuna Ikastetxea 54
4.2 Saioaren behaketa 55
4.3 Jarduerak 59
Ondorioak eta galdera irekiak
Erreferentzia
Eranskinak
Eransikina 1
Eranskina 2
Eranskina 3
Eranskina 4
Eranskina 5

1. AURREKARIAK ETA HELBURUAK

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako Curriculumean islatzen duen bezala, Lehen Hezkuntzako ikasleek zortzi gaitasun menperatu behar dituzte.

Europar Batasunak egindako proposamenaren arabera, eta azaldu diren gorabeherei jarraikiz, oinarrizko zortzi gaitasun hauek ezarri dira:

1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.

2. Matematikarako gaitasuna.

3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.

4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.

5. Gaitasun soziala eta herritartasuna.

6. Arte eta kultur gaitasuna.

7. Ikasten ikasteko gaitasuna.

8. Autonomia eta ekimen pertsonala.

Irakurriaren ulermena gai nagusitzat hartuz, hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna izanen da proiektu honen abiapuntua.

Irakurmena curriculumaren arlo guztietan sartzen da, atal guztietan du nolabaiteko eragina helburu lehenetsitzat eta eskolako jarduera osoa hezurtzen du ardatz gisa. Hori dela eta, gaitasun honi berariazko garrantzia ematea ezinbesteko da.

Nafarroako curriculumean honako hau ezartzen da:

> *"Irakurri eta idazteak bidea ematen digute informazioa bilatu, bildu eta prozesatzeko eta asmo komunikatiboa edo kreatiboa duten testu mota desberdinak sortu eta erabiltzeko. Irakurtzeak idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatu eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta, gainera, atseginaren iturria da, bestelako inguruneak, hizkuntzak eta kulturak ezagutzeko bidea*

> *eta fantasiaren eta jakinduriaren sorburua, eta horrek guztiak komunikatzeko gaitasuna mantendu eta hobetzeko laguntza ematen du."*

Hizkuntza gure eguneroko bizitza aurrera eramateko erabili behar dugun tresna da: erlazionatzeko, ikasteko, ulertzeko…. Beraz, gaitasun honek duen garrantziarengatik eta irakurritakoaren ulermenak duenarengatik batez ere, derrigorrezkoa da ikasleek Lehen Hezkuntzako etapan gaitasun hau lortzea eta menderatzea, geroari begira ezinbestekoa izango baitzaie. Hau dela eta, proiektu honen bidez, Lehen Hezkuntzan irakurketaren prozesua sakonki aztertzen saiatuko naiz. Honetan oso alderdi desberdinak sartzen direnez gero, irakurketaren dimentsioak landuko ditut.

Baina lehenago galdera bat egitea beharrezkoa da:

Zertan datza irakurketa, zerk osatzen du eta zerk parte hartzen du osagai bakoitzak?

Irakurketa lau osagaiek eratzen dute: irakurlea (testua irakurriko duen pertsona), testua (irakurriko den euskarri teorikoa), irakurketaren bitartean ematen diren prozesuak eta helburua (irakurketaren bitartez lortu nahi dena).

Amaitzeko esan beharra dago, egun irakurriaren ulermena ebaluatzeko proba bereziak badaudela. PIRLS (*Progress in International Reading Literacy Study*) Hezkuntza errendimendua ebaluatzeko Nazioarteko azterlana da. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei pasatzen zaizkie zaizkie. 50 lurraldek baino gehiagok parte hartzen dute, Espainak haien artean.

2. IRAKURKETAREN ESPARRU TEORIKOA

IRAKURKTEAREN DIMENTSIOAK

Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculumak hauxe xedatzen du:

> *"Gaitasun horrek barne hartzen du hizkuntzaren konbentzio sozialez, balio eta alderdi kulturalez eta testuinguruaren eta komunikazio asmoaren araberako moldakortasunaz ohartzea.*

> *Berarekin dakar beste pertsonen tokian jartzeko gaitasun enpatikoa, irakurri, entzun, analizatu eta bereak ez bezalako iritziak sentsibilitatez eta izpiritu kritikoaz onartzekoa, mamiari eta formari dagokienez ideiak eta emozioak egoki adierazteko eta kritikak egin eta izpiritu positiboaz onartzekoa"*

Honen bidez ikus dezakegu, irakurketak berak oso esparru eta testuinguru anitzak eta desberdinak dituela. Testuinguru zehatz batean ematen diren irakurlearen eta testuaren arteko elkarreraginek argi uzten dute irakurketaren dimentsioen garrantzia: irakurketa zein egoeratan sortu den, idazlearen asmoa, irakurritakoari esanahia ematen dioten ulermen prozesuak, irakurketaren arintasuna eta ozenki irakurtzea...

2. 1. EGOERAK

Irakurketaren helburuak anitzak izan daitezke, eta hauek ondo bereizten jakin behar dugu: beste pertsonen tokian jartzea, zenbait gairi buruz sentsibilizatzea, izpiritu kritikoa zein positiboa piztea...

Irakurketa testuinguru batean baino gehiagotan gerta daiteke. Beraz, egoera desberdin horiek kontuan hartu behar ditugu beti: egilearen asmoa, irakurlearen interesa, beharrak eta asmoak...

Europako Kontseiluak hizkuntzaren barnean lau arlo bereizten ditu: publikoa, pertsonala, profesionala eta hezkuntzakoa.

> *"Hizkuntz jarduerak arloen testuinguruan kokatzen dira. Arloak askotarikoak izan daitezke, baina hizkuntzen ikaskuntzari loturiko arrazoi praktikoak direla eta, lau arlo-mota bereizten dira oro har: arlo publikoa, arlo pertsonala, hezkuntza-arloa eta lan-arloa.*
>
> *<u>Arlo publikoak</u> elkarreragin sozial arruntari dagokion guztia hartzen du bere baitan (enpresa- eta administrazio-entitateak, zerbitzu publikoak, kultur eta aisia-jarduera publikoak,*

hedabideekiko harremanak, etab.). Horren osagarri da arlo pertsonala, familiarteko harremanak eta gizabanakoaren gizarte-jarduerak biltzen dituena. Lan-arloak nork bere lanbidearen jardunean egiten dituen ekintzekin eta harremanekin zerikusia duen oro hartzen du. Hezkuntza-arloak (izaera oro har instituzionaleko) ikaskuntzarekin edo formazioarekin zerikusia du; testuinguru horretan, ezagutza edo trebetasun espezifikoak lortzea da helburua" (Eropar Kontseilua, 2005)

Argi dago edozein gizabanakok bere bizitzan zehar, lau arlo ezberdin hauetan praktikan jartzen duela hizkuntzaren jarduera, irakurmenak prozesu honetan garrantzi handia izanik.

Haurrek ez dute prozesu hau helduen moduan garatu oraindik, horregatik lau esparruek ez dute haientzat eragin edo garrantzi berbera. Lehen Hezkuntzan bi alde lehenetsi behar dira:

- Irakurtzea esperientzia literario moduan, norberaren gozamendurako.
- Irakurtzea informazioa eskuratzeko eta erabiltzeko.

Beste era batera esanda, haurrek irakur dezakete gozatzeko edo ikasteko.

Lehen hezkuntza oso garrantzitsua da, bai ikasleek, bai irakasleek ere, bi esparru hauek ondo bereiztea. Arazotsua suerta daiteke ikasleek bi hauek nahastea, irakurketa ikasketekin lotu dezaketelako eta era honetara, gerta daiteke inoiz plazer eta gozamen moduan ez sentitzea.

Laburbilduz, irakurmenaren gaitasuna oinarrizkoa da, eta aldi berean beharrezkoa eskola garaian dagoen edozein haurrarentzat. Argi dago eskolan eta ikaskuntzan eduki gehienak idatziz transmititzen direla, beraz ezinbestekoa dugu hezkuntzan prozesu honen garapen egokia edukitzea.

Ikasleek ondo irakurtzen ez badute, idatzitako edozein dokumentu ezingo dute erabili, eta dakigunez, Lehen Hezkuntzako material gehienak (testu liburuak, fitxak...)

idatzizko euskarri batean aurkitu eta sortzen ditugu. Beraz, irakurketaz gain beste arlo askotan zailtasunak edukiko dituzte eta haien ikasketa-prozesua asko motelduko da.

Irakurtzeko zailtasunari beraz, ahalik eta lasterren aurre egitea eta konponbidea ematea da irakaslearen lana, denboran iraupen luzeegia badu eskola-porrota bihur daitekeelako eta ikasleek arazo honengatik ikasketak alde batera utz dezaketelako. Honez gain, irakurtzeko abilezia eskasa izateak lanaren kalitatea baldintzatzen du helduaroan, eta informazioa eskuratzeko eta gizartean parte hartzeko gaitasuna murrizten du.

Irakurtzen ikasteak garrantzi izugarria dauka edozein ikaslerengan geroari begira, horregatik irakaskuntzan lehenetsi behar den helburuetako bat da. Irakasleok buru belarri aritu behar dugu arlo honetan ahalik eta arazo gutxien gerta daitezen, horrela eskola porrota ekidituko baita.

Irakasleok argi izan behar dugu beti, arazo hauei aurre egiteko modu egoki bat dela uneoro ikasteko irakurketa eta gozatzeko irakurketa ezberdintzea, ikasleek irakurketa lan eta zama bat bezala ikus ez dezaten.

2. 2. PROZESUAK

Lehenik eta behin komenigarria da jakitea ikasle baten irakurmen garapena ez dela irakurtzen ikasten hasten den momentuan sortzen. Irakurtzen ikasi baino lehen beste fase batzuk daude eta hauek ere osatzen dute irakurmen garapena.

Hasierako fase hauetan lau bereiztu behar dira:

1. Alfabetatu aurreko fasea:

Haurrek irakurtzen ikasi aurretik hitz batzuk ezagutzen dituzte dagoeneko. Hau da, hitz batzuk “irakurtzen” dakite. Arrazoi ezberdinengatik gerta daiteke hitz solte hauen ezagupena: hitz tipografia berezia dutelako, lehenengo hizkia marrazki batekin hasten delako…

Fase honetan ikasleek ez dute alfabetoa ezagutzen eta irakurtzeko ez dituzte letren eta soinuen egokitasun arauak erabiltzen, beraz ez dakite oraindik irakurtzen.

2. Alfabetatze partzialeko fasea:

Fase honetan ikasleek letra batzuk ezagutzen dituzte eta ikasitakoa erabiltzen dute, hizki guztiak ezagutzen ez dituzten arren. Normalean hitzen hasierako hizkiak ezagutzen dituzte edota bere izena edo bere senideen izenak osatzen dituzten hitzak.

3 Alfabetatze osoko fasea:

Momentu honetara iristerakoan letren eta soinuen loturak ikasi dituzte, eta ikasitako hitzak irakurtzeko erabiltzen dituzte. Fase honetan ikasleek irakurtzen dute.

4. Alfabetatze finkatuko fasea:

Fase honetan ikasleek badakite irakurtzen. Hitzak irakurtzen doazen heinean konturatu egiten dira letren eta soinuen konbinazioak unitate handiagoetan antolatzen direla; hau da silabetan, morfemetan eta hitzetan.

Irakurtzeko prozesuei dagokienez, kontuan hartu behar dugu irakurtzea abilezia konplexua dela.

Abilezia konplexua da irakurtzea, eta buruko hainbat prozesuk eta jakintzek (fonologiari, ortografiari, sintaxiari, semantikari, testuari eta testuinguruari buruzkoak) hartzen dute parte abilezia horretan, idatzizko informazioaren esanahia hartzen eta interpretatzen.

Behin hasiera faseak pasa direla eta ikasleak berez irakurtzen dakienean, zailtasunak suertatzen dira benetan hitzen esanahia ulertzeko eta horretaz gain, testu konplexuagoak ulertzeko. Horregatik, prozesu ezberdinak bereizten dira. Alde batetik, hitzen esanahia testu baten barruan ulertzeko eta identifikatzeko erabiltzen diren prozesuak daude eta bestetik, prozesu sintaktiko eta semantikoak.

1. Hitzen ezagutzan parte hartzen duten prozesuak

Hitzen ezagutzan hautemate prozesua aipatu beha da. Hitzak testuetan ikusmenaren bidez identifikatzen ditugu edo ukipenaren bidez (braille) itsuak diren pertsonen kasuetan. Gure begiek hitzetan aurkitzen duten informazioa denbora laburrean hautematen dute, gainontzeko denbora gure garunak behar du informazio hori prozesatzeko.

Honetaz gain, prozesu lexikoak ere, kontuan hartu behar ditugu. Irakurtzeko ez da nahikoa letrak eta hitzak identifikatzea, honekin bakarrik ez baita lortzen irakurritakoa ulertzea. Esanahia deszifratu behar da, nolabait.

Saiakerak egin dira deszifratze prozesu hau argitzeko, arrakastatsuena (Coltheart, Rastle, Perry, Langdon eta Ziegler: 2001) izan delarik.

Hauek bi prozedura bereizten dituzte:

- Prozedura zuzena: Prozedura honen bidez, zuzenean lotzen dugu hitzaren forma ortografikoa haren barne-adierazpenarekin.
- Zeharkako prozedura edo prozedura fonologikoa: Prozedura honen arabera, letrak (edo letra-multzoak) soinu bihurtzen ditugu.

Prozesu hauek elkarrekiko osagarriak dira, biak irakurtzen ari garen momentuan erabiltzen baititugu.Beraz, Biak beharrezkoak dira irakurtzeko.

2. Esanahien identifikazioan parte hartzen duten prozesuak

Lehenago aipatu dugun moduan, irakurtzerakoan ez da aski hitz bakoitzaren esanahia ulertzea irakurtzen duguna ondo ulertu ahal izateko.

Hitzek berez duten esanahia ulertu behar da, baina hitzak elkartzean sortzen diren esaldiak eta testuak ulertzea ezinbestekoa da. Honetarako haien arteko harreman sintaktikoak eta semantikoak ezagutu behar dira.

Hasieran, esaldi baten barruan dauden hitzen esanahia ulertuko dugu modu soltean. Ondoren, hitz bakoitzak esaldi horretan betetzen duen funtzioa zehaztu behar dugu, hitzen egitura hierarkikoak osatzen.

Geroago, ideiak prozesatu ondorengo inferentzia egiten da. Honek lagunduko digu, testuko ideia ezberdinak harremanetan jartzen.

Azkenik, irakurleak aldez aurretik dituen ezagutzen sarea eratu behar du. Esanahia identifikatzeko prozesua oso gogorra da lan-oroimenaren ikuspegitik.

Irakurketa prozesuei garrantzi handia eman behar zaie, irakurritakoaren ulermena ahalik eta gehien bermatzeko.

Nazioarteko ebaluazioen planteamenduaren arabera eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza hobetzeko planaren arabera, bost irakurketa prozesu planteatzen dira:

- Informazioa biltzea edo berreskuratzea
- Ulermen globala
- Interpretazioa garatzea
- Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa
- Testuaren formaren gaineko hausnarketa

Sailkapen hau zenbait aspekturen arabera egiten da (Iza, 2007):



Figura 1: Irakurketa prozesuak

Sailkapena egiteko testuaren barneko informazio nagusia eta testutik kanpoko ezagutza desberdintzen dira. Lehenengoaren barruan testuaren zati ezberdinak

kontuan hartzen dira eta haien arteko erlazioak zehazten dira (osotasunean batetik, eta zatien arteko erlazio bezala, bestetik). Bigarrenean ordea, testuko edukiari edo formari erreparatzen zaio. (Iza, 2007)

1. *Informazioa biltzea eta berreskuratzea:*

Informazioa biltzeko eta berreskuratzeko ikasleak, testuan dagoen ageriko informazioa aurkitu, aztertu, identifikatu eta garrantzitsuena atera behar du.

Eduki hauek literalak izan daitezke batzuetan: tokia, denbora, pertsonaien izena, etabar.

Beste batzuetan, ez da informazioa modu literal batean ageriko Beste era batean idatzita topatuko dute eta sinonimoen bidez, transkribatu beharko dute.

2. *Ulermen globala:*

Ulermen globalaren bidez, testuaren ideia orokorra lortu behar da. Testua modu orokorrean ulertu behar da.

Honetarako testuan ageri diren ideia ezberdinak antolatu behar dira, ideia orokorrenetatik xumeetaraino, ideia orokorrenari garrantzia emanez.

Normalean ikasleek zalantza ugari izaten dituzte ideia nagusia eta gaia desberdintzeko. Oso antzeko kontzeptuak dira haientzat eta zaila egiten zaie bien arteko ezberdintasuna ikustea.

Honetarako bi galdera ezberdin planteatu behar dira:

- Gaia zein den jakiteko: Zeren inguruan ari da testua?

- Ideia nagusia zein den jakiteko: Zein da idazleak gaiarekiko azaldu nahi duen ideia garrantzitsuena?

Galdera hauen bitartez errazagoa suertatuko zaie bi kontzeptuak desberdintzea.

3. *Interpretazioa garatzea:*

Testua interpretatzea dagoeneko hierarkizatu ditugun ideien artean harreman logikoak ezartzean datza. Era honetara, testua bere osotasunean modu logiko batez ulertuko da. Hauek dira interpretazioaren garapenean eman daitezkeen pausoak: ekintza bat beste baten ondorio dela adieraztea, aurretik arrazoitu ondoren ideia nagusia zein den adieraztea, izenordain baten erreferentea zehaztea, testuan orokortzeak identifikatzea, bi pertsonaien arteko erlazioa deskribatzea...

4. *Testuaren edukien gaineko hausnarketa:*

Testuak aipatzen edo lantzen duen gaiaren inguruan baieztapenak egitean datza. Aldi berean, gaiaren inguruan iritzi ezberdinak lantzen dira eta haiekin lotutako kanpoko ezagutzekin harremanetan jartzen dira. Iritzi kritikoa emateak garrantzi handia du.

Ariketa edo jarduera ezberdinen bidez landu daiteke: testuan aipatzen denaren inguruan iritzia eman, benetan gerta daitekeen edo ez eztabaidatu, ikasleek noizbait halakorik ikusi duten …

5. *Testuaren formaren gaineko hausnarketa.*

Testuaren forma aztertzeko gai izatea da, bai testuaren egiturari buruzko alderdiei dagokienez, bai testuaren estilo eta erregistroari dagokiena ere. Honetan testuaren ezaugarri linguistikoak landuko dira (arlo morfosintaktikoan, lexiko-semantikoan eta testuzkoan).

2. 3. TIPOS DE TEXTO

En Educación Infantil y Primaria se trabaja la lectura de diferentes tipos de textos. Podemos encontrar mucha variedad tanto de tipo de texto como de género y es importante dar cabida a todos ellos, pero debemos saber en qué momento trabajar cada uno.

Desde el inicio de la enseñanza encontramos textos enumerativos, informativos, literarios, expositivos y prescriptivos.

Mediante estos diferentes tipos de texto y diferentes géneros se ordena la organización del currículo. Para llegar a comprenderlos, será necesario trabajar las estrategias de lectura necesarias.

En el momento de diferenciar los tipos de texto se utilizan los siguientes criterios, (Ministerio de Educación y Ciencia, 1993) :

- Lugar en el que se utilizan: literatura, medios de comunicación...
- Relación entre personas
- Reales o ficticios
- Tema:publicitario, humanístico...
- Objetivo: comunicar, divertir, informar...
- Intención de comunicación del autor:texto narrativo, explicativo...

Esta es una de las clasificaciones de los tipos de texto, pero no debemos olvidar que podemos encontrar muchas diferentes.

Como hemos mencionado anteriormente, es importante elegir un buen material para cada momento del aprendizaje. Diferentes textos pueden ser más apropiados para una edad que para otra, de acuerdo con el nivel de los alumnos en cada ciclo. De todos modos, es posible trabajar todos los tipos de textos en todas las edades adecuándolos, a su nivel.

Taula 1. Tipos de texto

Textos prescriptivos	Textos enumerativos	Textos infromativos	Textos literarios	Textos expositivos
Instruciones Recetas	Listas Carteles Programas	Noticias Anuncios Correspondencia	Cuentas Narraciones Poemas Canciones	Descripciones Informes Definiciones Reseñas

			Adivinanzas	Dosieres

Textos enumerativos:

Los textos enumerativos son los que más utilizamos en nuestra vida cotidiana. En muchos momentos nos encontramos con situaciones en las cuales leemos o producimos textos con la finalidad de comunicar o localizar uno o varios datos concretos. Los encontramos en formas y modelos diversos: folletos, listas, tablas, carteles, agendas, etc. Es decir, hacer la lista de la compra, buscar una película en el periódico, un teléfono en la guía de teléfonos o localizar productos en el supermercado.

Este tipo de textos, como bien sabemos, tienen un tipo de características que en otros no encontramos. Se escribe de un modo determinado y también se lee de modo distinto a otros textos.

Por todo esto, es muy importante trabajar estos tipos de textos en la escuela. Por un lado, porque son muy básicos y necesarios en el día a día y por otro, porque por su simplicidad son muy adecuados para los primeros niveles de escolarización. Al mismo tiempo, son cercanos a los alumnos y de este modo, ellos mismos ven realmente la utilidad que tienen.

Para trabajar estos textos en clase es necesario comenzar con escritura de nombres, en segundo lugar las listas y en tercer lugar los carteles y programas.

Textos informativos:

En los textos informativos la finalidad es clara, informar sobre un tema. A diferencia de los textos enumerativos, los textos informativos están divididos en frases y párrafos.

Este tipo de textos s suelen relacionar con el periodismo: diarios, revistas, folletos, noticias, reportajes, artículos, etc. Dentro de ellos también podríamos considerar la correspondencia. Las cartas pueden ser algo literarias pero hoy en día la mayoría de correspondencia que se recibe suele tener finalidad informativa.

En algunos casos resulta difícil la elección de material en el momento de trabajar los textos informativos. Muchas de las noticias de los periódicos pueden ser muy duras para los niños, por esto es importante hacer una buena elección de los materiales. Hay opiniones en el sentido de que también es importante trabajar textos de este tipo aunque sean duros con el objetivo de que los niños vean la realidad.

Al mismo tiempo que trabajamos los tipos de texto y la lectura, podemos elegir noticias actuales y que tengan relación con el contexto cercano de los niños, de este modo trabajaremos diversos aspectos.

Los textos informativos se pueden utilizar con niños muy pequeños y seguir con ellos hasta último curso de Educación Primaria, ya que dentro de ellos podemos encontrar todo tipo de materiales y niveles.

Como antes hemos mencionado, hay diferentes géneros dentro de los textos informativos: noticias, anuncios y correspondencia.

Textos literarios:

En primer lugar debemos tener claro que la intención fundamental de la literaturaes producir placer. Esto es así por diversas razones: por el entretenimiento, por su belleza estética, por su capacidad de vivir aventuras, etc.

Como hemos mencionado anteriormente, es muy importante que los niños diferencien bien dentro de la lectura el momento de trabajar y el momento de disfrutar.

Por esto, dentro del aula deben elegirse bien los textos literarios, teniendo claro que estos produzcan placer al leerlos y al elaborarlos.

Es importante trabajar diferentes géneros literarios sin limitarse a los cuentos, aunque estos sean los más interesantes para los niños. Podemos encontrar muchos otros géneros como los cómics, las adivinanzas, las canciones, el teatro, etc.

Es preferible trabajar con ediciones originales y completas.

Hoy en día los niños pueden encontrar cuentos modernos, actuales e interesantes de todo tipo. Muchos de estos están relacionados con series y películas de la televisión y pueden ser muy adecuados y divertidos para ellos, pero no por ello debemos dejar de lado los cuentos clásicos, que se trabajan cada vez menos con los pequeños. Es

importante trabajar también los cuentos clásicos: Caperucita, Peter Pan, El Gato con botas, etc.

> *"La literatura es la mejor forma de acercarse a la diversidad cultural, que enriquece nuestro mundo y nuestro país: mitos y leyendas castellanos, andaluces, vascos, etc amplían los horizontes de nuestros alumnos, igual como los cuentos y leyendas exóticos."* (Ministerio de Educación y Ciencia, 1993, 94)

Estos textos pueden ser complicados para los niños, pero los profesores pueden ayudar a los alumnos, bien leyéndoles los cuentos o modificándolos para que sean más sencillos para ellos. Nunca debemos dejar algún material interesante de lado porque sea demasiado difícil, es importante respetar y valorar el pensamiento infantil.

Textos expositivos:

Podemos encontrar textos expositivos en el aula los desde el inicio del aprendizaje.

Siempre debemos tener en cuenta que el lenguaje debe ser aprendido y sirve para aprender más. En primer lugar, se aprende a leer y a escribir y una vez dominada la técnica, utilizamos la escritura o lectura como medio de aprendizaje en el aula.

Aun así, como anteriormente hemos comentado, podemos utilizar este tipo de textos desde el comienzo del aprendizaje escolar pero siempre eligiendo materiales adecuados a la edad y a la capacidad del alumnado. Realmente las tareas de identificar el tema de un texto o la idea principal, enunciados breves, problemas aritméticos, etc no son difíciles. La dificultad está en los textos que utilizamos para expresarlo. Debido a esto, debemos adecuar siempre los textos a las capacidades de los niños.

En todas las materias o asignaturas que trabajemos en el aula podemos encontrar textos expositivos, desde lengua hasta matemáticas. Por esto es importante dar una enseñanza global y unificada y relacionar los diferentes conocimientos en todas las asignaturas.

Con los más pequeños se puede manejar bibliografía, comentar murales temáticos, explicar y comentar procesos de fabricación y elaboración, etc.

Aunque nos parezca que los niños solo tienen interés por los textos literarios y principalmente los cuentos, debemos tener en cuenta que otro tipo de textos y temas también pueden interesarles.

Dentro de los textos expositivos encontramos muchos géneros diferentes: descripciones e informes, definiciones, reseñas, dossier…

Textos prescriptivos:

Son instrucciones que contienen información sobre como se debe realizar una tarea concreta. Hay muchos niveles diferentes, desde los más sencillos que podemos leer en un libro de texto hasta los más complejos. Es un tipo de texto importante ya que en el día a día lo podemos encontrar con frecuencia: instrucciones de un videojuego, cómo montar un electrodoméstico, funcionamiento de cualquier aparato, etc.

En el proceso de enseñanza y escolarización de un niño, el alumno encuentra textos prescriptivos en todo momento. Los profesores muchas veces se quejan de que los alumnos no leen bien las instrucciones antes de hacer los ejercicios y de que, en muchas ocasiones no son capaces de realizarlos bien debido a ello. Por esto estos textos son tan importantes y debemos trabajarlos bien en el aula desde el comienzo del aprendizaje.

Tipos de textos: leer para aprender, leer para disfrutar

En la vida utilizamos la lectura en diferentes situaciones y como anteriormente hemos mencionado, los niños en Educación Primaria la utilizan básicamente en dos de ellas: leer por el placer y por disfrutar y leer para aprender.

Como hemos visto, los diferentes tipos de textos tienen diferentes finalidades. Dentro de los que hemos trabajado, podemos ver claramente que los textos literarios tienen la finalidad de producir placer a los niños. Ellos lo pasan bien y de este modo, también podemos motivar a los alumnos a disfrutar con la lectura. Por ello, si realmente queremos conseguir el objetivo que pretendemos, es importante elegir el momento

adecuado para trabajarlos. Quizás es mejor utilizarlos en un área más amigable y menos relacionado con las tareas escolares, como puede ser la biblioteca del colegio. También se puede asignar cada semana una sesión para que cada alumno lleve a clase libros que le gustan o realizar otro tipo de actividades en este sentido.

Por otro lado, encontramos los textos informativos y expositivos. Estos, al contrario que los literarios, tienen la finalidad de leer para aprender. Mediante estos textos los alumnos aprenden diferentes materias. En los libros de texto la mayoría de los textos son informativos y enunciativos. Dan información sobre un tema en concreto, para que, partiendo de esa base, los alumnos aprendan diversas materias.

Para finalizar, hay que mencionar los textos enumerativos y los prescriptivos que tienen diferentes finalidades. Éstas no tienen que ver con la lectura para aprender ni con la lectura por el placer. Aun así son importantes y debemos trabajarlos.

Es necesario diferenciar bien la lectura para el placer y la lectura para aprender, así como el momento en el que trabajamos cada tipo de lectura relacionada con los diferentes tipos de textos. Para los alumnos es muy importante comprender la diferencia entre las dos lecturas, ya que puede ser peligroso mezclarlas y que lleguen a relacionar todo tipo de lectura con el aprendizaje.

2.4 ARINTASUNA IRAKURKETAN

Ikasleek irakurketaren mekanika menperatu dutenean eta esaldi eta testuak ulertzeko gai direnean, arintasuna edo bizkortasuna lantzeko momentua iristen da.

Arin irakurtzea ezinbestekoa bada ere, irakurritakoa ondo ulertu behar da. Arin irakurtzeaz gain, adierazpen egokiz irakurri behar da, geldialdi, tonu eta intonazio egokiekin.

Diotenez, arintasuna da irakurle on eta irakurle txarraren arteko ezberdintasunaren seinalea. Arintasun egoki batez irakurtzera iristen ez bada, ikasleak motibazioa galduko du ziurrenik. Behin motibaziorik ez dagoela, denbora pasatzen den neurrian, egoerak

okerragora joko du eta irakurle on eta txarren arteko ezberdintasunak gero eta handiagoak izanen dira.

Beraz, arin irakurtzen irakastea oso garrantzitsua da irakasle baten lanean. Afera honi buruz lan egiteko bi era desberdin daude eta bietatik irakatsi izan da arin irakurtzen:

- Lehena irakurketa ozenki behin eta berriz errepikatzea da. Hau da, ozenki askotan irakurtzea: testu bateko zati bat hartu eta behin eta berriz ozenki irakurtzea.

Hau ikasleak bakarrik egin dezake baina komenigarria da heldu baten laguntza izatea (irakasleak edo gurasoak izan daitezke)

Emaitza oso onak lortzen dira metodo honekin lan egiten denean, baina astuna izan daiteke ikasleentzat. Horregatik, irakasleak imajinazioa izan behar du eta ariketa dibertigarriak sortu beharko ditu.

- Bigarrena ikaslearen irakur zaletasuna bultzatzea da, haurra plazerarengatik irakurtzera motibatzea alegia, eta behin irakurtzeari zaletasuna hartu diola arintasuna nabarmen hobetuko da.

Bigarren ikuspegi honek ez du zientifikoki ziurtatu emaitza positiboak lortzen direnik, ozenki errepikatzearen metodoak berriz, argi uzten du emaitza onak lortzen direla.

Dena dela ere, argi utzi behar da ikaslearentzat askoz atseginagoa dela plazerarengatik irakurtzea.

Hala eta guztiz ere, irakurketaren ikaskuntza konplexua da eta galdera hau suertatzen da batzuetan (Eusko Jaurlaritza 2011):

A*rintasuna irakasteak mesede egiten al die irakurtzeko zailtasunak dituzten*

haurrei?

Erantzuna baiezkoa da. Ikasle batek zenbat eta arinago irakurri, orduan eta gehiago irakurriko du, esfortzu gutxiago kostatuko zaiolako alde batetik, eta motibatzen joango delako, bestetik. Beraz, argi dago arin irakurtzeak irakurketaren errendimendua hobetzen duela. Honetaz gain, esan daiteke pertsona bat arin irakurtzeko gai denean,

irakurtzen duenaren edukia ulertzeko askoz ere erraztasun handiagoa edukiko duela. Hauxe da irakurketaren funtsa, irakurtzen dena ondo ulertu ahala izatea.

Edonola ere, hobekuntza handixeagoak sumatu dira, aipatutako prozedurak irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleekin ezarri diren azterlanetan.

2.5 OZENKI IRAKURTZEA

Irakurketak laguntzen digu ezagutzak ondo ordenatzen, lan intelektuala antolatzen eta arrazonamendu modu ezberdinak garatzen.

Lehenago aipatu dugun bezala, irakurketa aspektu garrantzitsua da ikasle baten ikaskuntza garapenean, geroari begira eragin handia izango baitu. Ikusi dugunez, irakurle on bat izatera iristeko irakurmenaren bizkortasunak eragin handia dauka eta bizkortasun honetan garrantzia dauka ere, ozenki irakurtzeak.

Ozenki irakurtzea beraz, garrantzitsua da ikasle baten irakur garapenean. Hasiera batean irakasleak ozenki irakur diezaieke ikasleei eta geroago ikasleak izango dira ozenki irakurtzen joango direnak.

Ikerketa ezberdinek adierazi dutenez, irakasleak ikasleei ozenki irakurtzeak irakurzaletasuna sustatzen du haiengan. Modu honetan, irakasleak testu tipo eta genero ezberdinak aurkez diezaieke.

Ozenki irakurtzea praktikara eramaterako orduan, estrategia batzuk kontuan hartu behar ditu irakasleak.

Oso garrantzitsua da irakurtzeko une egokia hautatzea. Aproposa izan daiteke eguneko lanak hasi baino lehen izatea, eguneko lehen orduetan giro atsegina sortzea momentu horretarako.

Behin irakurtzeko ordua finkatu dela, testuak ikasleen adinera egokitu behar dira, mota desberdinekin probatu beharko da taldearentzat egokiak direnak aurkitu arte.

Irakurtzeko momentuan oso garrantzitsua da intonazio egokia erabiltzea; puntuazioa, etenak eta tonu ezberdinak ondo adieraziz.

Irakurtzen ematen den denbora ez da luzeegia izan behar ikasleek arreta mantendu ahal izateko denbora osoan zehar. Bost hamar minutu ingurukoa egokia izan daiteke. Irakurtzen diren testuak mota ezberdinetakoak izan daitezke, lehenago esan dugun moduan. Egokiena % 70a literatur testuak izatea da, eta gainontzekoa %30a iragarkiak, berriak eta abar.

Irakurketa amaitzerakoan une bat utzi behar da haurrek irakurritakoaren inguruan galderak egiteko eta zalantzak argitzeko. Ez da komenigarria ikasleei liburua erakustea.

Amaitzerakoan ikasleei bakarka irakurtzeko unetxo bat utziko zaie.

Dakigunez, haurrek imitazioz ikasten dituzte gauza asko: oinez ibiltzen, hitz egiten … Imitazioz ere, ikas dezakete irakurtzen. Irakurketaren aurrean eredu positiboak ikusten badituzte bere zaletasuna askoz handiago izango da. Hauxe da tresnarik hoberenetariko bat haien interesa eta motibazioa handitzeko eta benetako irakurle onak sortzeko.

Ikasleek ozenki irakurtzea oso garrantzitsua da. Egin diren ikerketen arabera, ozenki irakurtzeak irakurketaren abiadura hobetzen du, eta abiadurak eragin handia dauka irakurle ona edo txarra izatearekin.

Ozenki irakurtzerakoan ikasleek intonazioa eta puntuazioa oso kontuan hartu behar dituzte eta testua erabat ulertzera eta barneratzera iritsi behar dira.

Hau guztia zenbait estrategiaren bitartez landu daiteke:

Irakurketa ozena lantzean irakaslea izan behar da beti eredua. Modelazioaren bitartez ikasleek haren eredua errepikatuko dute. Irakasleak testu baten zati bat irakurriko du ikaslearen aurrean intonazioa, puntuazioa eta ahoskapena zainduz. Ondoren, ikasleek irakasleak egindakoa errepikatuko dute. Estrategia hau nahiko eraginkorra da ikasleek aurretik eredua ikusi dutelako.

Beste estrategia bat irakurketa “Coral” deituriko da. Hau praktikara eramaterako ikasleek eta irakasleak testu bat irakurtzen dute batera. Estrategia hau oso erabilia izan da urteetan zehar. Metodoak emaitza onak lortzen ditu baina kontuan hartu behar da zailtasunak dituzten ikasleentzat desegokia izan daitekeela. Ikasle batzuek zailtasunak izan ditzakete gainontzeko ikasleen abiadura jarraitzeko eta deseroso senti daitezke. Ikasle hauentzat beste metodo batzuk dira egokiagoak.

Beste metodo bat entzunaldien bidezko irakurketa da. Ikasleek liburu batean agertzen diren testuak irakurriko dituzte ozenki eta aldi berean, testu berbera entzungo da grabaketa baten bidez. Metodo honen inguruan ikerketa ezberdinak egin dira eta oso emaitza oso positiboak lortzen dira, dirudienez.

Bikotekako irakurketa, oso erabilia izan da azken aldian. Metodo honen arabera, ikasleek bikoteak osatzen dituzte eta bien artean testu ezberdinak irakurtzen dituzte. Honen helburua batak besteari zuzentzea eta zalantzak argitzea izango litzateke. Positiboa izan daiteke bikoteak ikasleen mailaren arabera egitea, irakurtzean ondo dabilen ikasle bat arazo gehiago duen batekin ipintzea, alegia.Honela,irakurle ona dena eredua izango da bestearentzat. Dena den, bikoteen eraketan oso iritzi ezberdinak daude. Bikoteen arteko maila oso handia izatea kaltegarria izan daiteke ere, bikotekide bat asko aspertuko litzatekeelako. Irakurketa metodo hau aurrerago sakonduko dugu.

Azkenik, esan dezakegu irakurketa antzerkiarekin harremanetan jartzea oso positiboa izan daitekeela. Haurrek asko maite dute aktore gisa ibiltzea, eta argi dago haurren motibazioa sustatu behar dugula beti. Beraz, testu ezberdinak aukeratu daitezke eta hauetan ageri diren elkarrizketak erabiliz, antzerkitxoak antolatu. Ondo pasatzen duten bitartean, irakurketa lantzen dute eta antzezlan ezberdinak ezagut ditzakete.

3. GARAPENA

3.1 ESTRATEGIAK

Irakurketaren ulermena lantzeko marko teorika ezarri ondoren, eskolan erabil daitezkeen estrategia mota ezberdinak landuko ditugu (Solé, 1992):

ESTRATEGIAK

Irakurketa lantzeko erabil daitezkeen estrategien inguruan teoria eta sailkapen ezberdin asko dago. Argi dago ikasleek irakurketa garatzeko estrategia ezberdinak ikasi behar dituztela, geroari begira irakurle autonomoak bihur daitezen eta testuak abiapuntu edukita, ikasteko gai izan daitezen.

Estrategien bidez irakurleak irakurritakoa hobe ulertzera irits daiteke eta ulermenean izan ditzakeen arazo edo akatsez ohar daiteke ere.

Garrantzitsuagoa da estrategia batzuk ondo ezagutzea eta ondo erabiltzeko gai izatea, ezberdin asko ezagutzea baino.

Interesgarria izango litzateke zenbait adituk esaten dutena ezagutzea.

TEORIAK

(Solé,1992) bertan aipatzen da,Collins eta Smith en teoria.

Hiru fase bereizten dituzte:

- Modelatuaren fasea: irakaslea eredutzat hartzen da. Berak ozenki irakurtzen du eta testua ulertzeko erabiltzen dituen prozedurak azaltzeko behar diren etenak egiten ditu. Aldi berean, suertatzen zaizkion zalantzak edo ulermen arazoak aipatzen ditu eta hauek konpontzeko erabiltzen dituen estrategiak azaltzen ditu.
- Ikasleen parte hartze fasea: hasieran modu zuzenduan bideratzen da, ikasleari galderak eginez. Ondoren, askatasun gehiago ematen zaio, ikasleak berak estrategiak erabil ditzan. Fase honetan oso garrantzitsua da irakurketa gidatua.
- Isiltasunean irakurtzearen fasea: aurreko guztia bakarrik egiteko gai izan behar dira ikasleak: helburuak ezagutu, hipotesiak sortu … Honetarako testu bereziak erabil daitezke (zuzendu beharreko akatsak dituztenak, adibidez).

<u>Elkarrekiko irakaskuntza</u>

Ikaslearen papera oso parte hartzailea da kasu honetan. Oinarrizko lau estrategia erabiltzen dira testuen ulermenerako.

- Hipotesiak sortu
- Testuaren inguruko galderak egin
- Zalantzak argitu

- Laburpena egin

Maila ezberdinetako taldeak antolatuko dira eta talde bakoitzeko kide guztiek testu berbera irakurriko dute. Taldeko ikasle batek galdera bat proposatuko du eta gainontzekoek erantzun beharko dute. Ondoren, zalantzak guztien artean argituko dituzte eta testuaren zati baten laburpena egingo dute.

Irakaslearen papera hauxe da: bere eredua eskaintzea, ikasleek egiten dutena gainbegiratzea eta behar den momentuan zuzenketak egitea.

Teoria ezberdin batzuk ikusi ondoren, erabil daitezkeen estrategiak aztertuko ditut.

Testu bat irakurri baino lehen zenbait estrategia edo metodo erabiltzea baliagarria izan daiteke.

IRAKURKETAREN ULERMENA LANTZEKO ESTRATEGIAK

Oinarrizko lau ezinbesteko estrategia planteatzen dira:

- Irakurtzen ari denaren inguruan predikzioak egitea
- Irakurtzen ari denari buruz galderak proposatzea
- Irakurri denari buruzko dudak argitzea
- Ideia nagusiak laburtzea

Lehenago Collins eta Smithen teoria aipatu dugun moduan, estrategia hauen ikaskuntzan fase ezberdinak emango dira.

Hasieran irakaslearen laguntzak garrantzi handia izango du. Irakaslea eredutzat hartuko da eta modelatzailea izango da. Ondoren, irakurketa zuzendua izango da. Ikaslea bakarrik irakurtzen saiatuko da, irakaslearen laguntza izango duelarik.

Hemen helburua bakarkako irakurketa izango litzateke Hau da, ikaslea gai izan behar da irakurtzen duen edozein testu ulertzeko.

Batzuetan ikasleentzat zaila izan daiteke irakurketa zuzendu horretatik bakarkako irakurketara pasatzea. Horregatik, lehenago aipatu dugun bezala, lan honetarako material bereziak prestatzea ezinbestekoak da.

Predikzioak

Predikzio hauek egiteko, ikaslea testua irakurtzen ari den bitartean, galderak sartzen ahal zaizkio. Hauen bitartez jakin dezakete zer gerta daitekeen eta gutxika predizkzioak egiten ikasiko dute. Galdera horien erantzunak idaztea egokia izan daiteke, irakurketaren bukaeran haiek erantzundakoa testuak dionarekin bat doan ala ez ikusteko

Galderak eta zalantzak

Estrategia hau lantzeko ikasleari akatsak dituen testu bat ematea aproposa izan daiteke, honela ikasleak akatsak aurkitu beharko ditu eta era egoki batez zuzendu.

Beste aukera bat, hutsunez betetako testu bat ematea da haietan ikasleak egokia iruditzen zaiona ipintzeko.

Honen aldaera bat izan daiteke hutsune horiek betetzeko aukera ezberdinak ematea Ikasleak zuzenena ipini beharko du.

Laburpena

Laburpenak egiteko orduan zatika hasi behar da, laburpen osoa egitera iritsi arte. Horretarako hasiera batean egokia izanen da ikasleari testuko paragrafo bakoitzaren azpian laburpen bat egiteko aukera ematea, honela gutxika testu osoaren laburpena osatuko du.

Beste aukera bat da laburpenaren hasiera ematea eta ikasleak amaitu dezan.

Honelako laguntza motak ikaslea bera bakarrik laburpen oso bat egiteko gai izan arte emango dira.

Behin testua irakurri ondoren, eta testua irakurtzean erabili behar diren zenbait estrategia erabili ondoren, oso garrantzitsua izango da irakurritakoaren ulermena lantzea.

ULERTZEN ETA IKASTEN JARRAITZEKO ESTRATEGIAK

Testua irakurri denean ondo ulertu dela egiaztatu behar da. Honetarako ondoko pauso hauek jarraitu behar dira:

Ideia nagusia identifikatu

Normalean ikasleek zalantza ugari izaten dituzte ideia nagusia eta gaia desberdintzeko. Oso antzeko kontzeptuak dira haientzat eta zaila egiten zaie bien arteko ezberdintasuna ikustea.

Honetarako bi galdera ezberdin egin behar dira

Gaia zein den jakiteko: Zeren inguruan ari da testua?

Ideia nagusia zein den jakiteko: Zein da idazleak gaiarekiko azaldu nahi duen ideia garrantzitsuena?

Galdera hauen bitartez errazagoa suertatuko zaie bi kontzeptuak desberdintzea.

Testuaren gaia eta ideia nagusia identifikatzeko gai direnean laburpen bat eginen dute.

Laburpena egin

Hasierako laburpenak ez dira oso laburpen jorratuak izanen. Testuaren benetako funtsa ateratzea eta hortik abiatuz, testutxo bat sortzea izango da helburua. Zeren inguruan ari den jakitearekin nahiko izango da.

Laburpen testu bat sortzerakoan derrigorrezkoak izango diren zenbait atal egongo dira.

Ikasleei hauek zein diren azaldu beharko diegu laburpen on bat egitea zer den jakin dezaten.

- Garrantzitsua den informaziorik ezin da ahaztu.
- Beharrezkoa ez den informazioa ken daiteke. Ez dugu ideia bat behin eta berriz errepikatu behar.
- Daukagun informazioarekin orokorragoa den beste informazio bat sortu behar dugu

Momentu honetan irakaslearen lana oso garrantzitsua da, ikaslei erakutsi behar zaie gaia aurkitzen eta beharezkoa ez den informazioa baztertzen, askotan oso zaila suertatzen dena. Garrantzitsuak ez diren detaile eta informazioak kentzen ikasi beharko dute ere.

Bestetik, erakutsi behar zaie ideia ezberdinak nola taldekatzen diren.

Galderak egin eta erantzun

Puntu honek guziak elkartzen ditu nolabait. Galderak egokiak izan behar dira ikasleak modu egokian erantzun ditzan.

Galderek gaia eta ideia nagusia identifikatzen lagun diezaiekete.

Galderak mota ezberdinetakoak izan daiteke:

- Literalak direnak, hau da, testuan erantzuna hitzez-hitz aurkitzen dugunean.
- Testuan ageri direnak baina ez modu literal batean. Hauek testutik ondoriozta daitezken erantzunak dira.
- Testuan erantzuna ez dagoenean, ikasleak testuan ageri den gaiaren inguruan edo agertzen den zerbaiten inguruan bere iritzia eman behar duenean.

Aipatutako estrategia guztiak menderatzera iristea ezinbestekoa da geroari begira, ikaslea irakurle autonomoa bihur dadin eta testuak ekoizteko eta haietatik ikasteko gai izan dadin. Hau bakarrik egiteko, inolako zuzenketa edo moldeaketarik gabe, gai den momentuan irakurle autonomo bihurtu dela esan daiteke.

Estrategia hauek praktikara eramateko orduan garrantzitsua izanen da hurrengo pausoak kontuan hartzea:

IRAKURRI AURRETIK

Lehenik eta behin, oso garrantzitsua da haurrak irakurketari buruzko ideia ezkorrak ez izatea.

- *Ideia orokorrak:*

- Borondatezkoa eta atsegina den ekintza bat da.
- Ikasteko, informazioa lortzeko eta gozamenerako tresna bezala hartuko da.
- Irakurketaren bitartez atsegina lor daiteke.
- Ez da lehiaketa bat.
- Esanguratsua izateko, egoera eta testu egokiak aukeratu behar dira.
- Irakasleak, haurrek irakurketan dituzten zailtasunak kontuan hartuko ditu.

Bestetik, haurrak irakurketaren kontzeptu egokia hartu duenean onuragarria izanen da irakurketarekiko nolabaiteko zaletasuna edo motibazioa edukitzea.

- *Irakurketarako motibatzea*

Haurra motibatzeko

- Egin behar duena ezagutu behar du.
- Bere burua gai ikusi behar du egin behar duenaren aurrean.
- Proposatzen zaiona interesgarria aurkitu behar du.
-

Irakurketa egoera motibagarriak bilatu behar dira

- Errelak direnak.
- Helburu zehatza dutenak.
-

Hau guztia lortzeko

- Irakurketa lana ongi antolatu.
- Material egokiak aukeratu.
- Aldez aurreko laguntzak zehaztu.
- Konpetibitatea bultzatzen duten egoerak ekidin.
- Testuinguru errealetara hurbiltzen diren egoerak piztu.
- Irakurlearen erritmoa errespetatu.

- *Aldez aurreko ezagutza piztu*

Garrantzitsua da haurrek dituzten aldez aurretiko ezagutzak zehaztea. Hau eguneratzeko eta pizteko zenbait jarduera egin daitezke.

- Informazio orokorra eman irakurri behar denari buruz
- Testuaren zenbait aspektuez ohartzeko laguntza eman, nahiz eta testuaren arabera aldatuko diren
- Ikasleek gairi buruz dakitena azaldu

- *Testuari buruzko predikzioak egin*

- Irakurri aurretik predikzioak egin daitezke, nork bere esperientzietan eta testuaren ezaugarrietan oinarrituz
- Hipotesiak botatzeak, arriskatzea suposatzen du
- Estrategia hau testu mota ezberdinekin lantzea ezinbestekoa da

- *Ikasleen galderak bultzatu*

- Predikzioekin, irakurketaren bitartez erantzungo diren galdera zehatzak planteatzen dira. Irakurketa helburuduna bihurtzen da.
- Testuaren estrukturak eta antolaketak, galderak egiteko laguntza emango digute.

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Beraz, ikasleak irakurketa maila egokia izatera irits daitezen, landutako guztia gelara eraman behar dugu. Honetarako estrategiak modu ezberdinez landuko behar ditugu.

Lehen Hezkuntzan irakurketa lantzeko eta garatzeko, ikasgelan erabili beharko genituzkeen zenbait jardunbide aipatuko ditut (Eusko Jaurlaritza, 2011).

Haur Hezkuntzan ikasleak alfabetoa jorratzen hastea. Honek hizkuntzaren unitate fonologikoen kontzientzia hartzen laguntzen die (silabak, fonemak …). Jarduera hauen bitartez, grafemak fonema bihurtzen eta alderantzizko arauak lantzen dira, gutxika automatikoki kontrolatzera iritsi arte.

Bestalde, ulermena lehenago aipatu ditugun testu mota ezberdinekin landu daiteke.

Garrantzitsua da haurren testuinguru eta bizipenetatik gertu dauden testuak lantzea: oharrak, urtebetetzerako gonbidapenak. Modu honetan haiek erosoago sentituko dira eta ikasitakoaren erabilera ikusiko dute.

Informazioa ematen diguten testuak lantzea ere egokia da, gehien bat albisteak. Hauek gertuko gertakariekin lotuta egotea aproposa izan daiteke.

Lehenago aipatu dugun bezala, irakurri aurretiko estrategiak eta irakurri ondorengoak bereiztuko ditut:

Irakurri aurretik eta irakurri bitartean

- Ikaslearen aurre ezagutzak lantzea ezinbestekoa da. Hau da, landuko den gaiaren inguruan aurretik dituen ezagutzak lantzea eta aktibatzea.
- Testuarekin bat datozen ideiak interpretatzea eta irakurritakoarekin duten harremana edo horren arrazoia hausnartzea.
- Testuan aurkitzen dituen hitz eta lexikoa lantzea.

Irakurri ondoren:

- Ozen irakurtzea, behar bezala ahoskatuz eta erritmo egokiari jarraituz, irakasleek moldatuta.
- Irakurketa egunero lantzea, bai bakoitza bere buruarekin baita talde txikitan ere.
- Oso garrantzitsua da heldu batekin batera irakurketa lantzea eta ikasleek pasarte motzak behin baino gehiagotan irakurtzea (hiru edo lau aldiz gehienez, arinago irakurtzen ikasteko).
- Irakurri bitartean sortzen diren ulermen-arazoak identifikatzea: hitz ulergaitzak, etab.
- Lantzen ditugun testu-generoak identifikatzea.
- Ikasleek ikastetxeko liburutegia erabiltzea, hala nola, informazio komunikabideak eta teknologiak ere.
- Talde malguak edo talde interaktiboak osatzea eta heldu batek baino gehiagok parte hartzea ikasgelako.
- Zailtasunak goiz hautematea eta esku hartze goiztiarra izatea komenigarria da. Honela haur gehienek hobeto erantzungo dute.

3.2 BERRIKUNTZAK

Bikotekako irakurketa landuko den harren aipatzekoak dira: talde elkarreragile edo irakurketa dialogikoak.

BIKOTEKA IRAKURTZEN

Bikoteka irakurtzea berdinen arteko tutoriak sustatzen dituen programa bat da. Ikasle, irakasle zein familiek martxan jartzen dute eta helburua irakurmen gaitasuna hobetzea da.

Oinarria berdinen arteko tutorian edo bikoteetan datza (profesionalek ez dute inoiz bikote edo tutore parte hartzen).

Bikotekako irakurketa egun, zenbait ikastetxetan sortzen ari den dinamika bat da. Ikasgela bateko ikasleen artean bikoteak sortzen dira eta honela lantzen dute irakurketa.

Modu honetan, hizkuntza ikasteko didaktika berri bat sortzen da. Helburua ikasleen irakur gaitasunak hobetzea da, ahozko ulermena, hain zuzen ere. Dena dela, lan hau gainontzeko estrategiekin sustatu behar da benetako emaitza positiboak lortu ahal izateko. Esan behar da ere metodo honek ikasleen arteko kooperazioa bultzatzen duela.

Dakigunez, edozein programen arrakasta bere parte hartzaileengan eragiten duen motibazioarengatik neur daiteke. Horregatik programan parte harten duten familiek zein irakasleek argi ikusi behar dute bikoteka irakurtzeak duen garrantzia eta honen eragin positiboa. Ikasle guztiak ezberdinak diren bezala, gaur egungo ikastetxeak oso anitzak dira. Horregatik aniztasun honetatik ahalik eta probetxu gehien atera behar dugu Maila edo ziklo berean irakurketan maila ezberdinak dituzten ikasleak egoten dira eta horregatik funtzionatzen dute hain ondo bikoteka irakurtzeko programek.

Ikasleentzat ere oso motibagarria suertatzen da, asko gustatzen baitzaie tutoreen lana egitea, hau da, irakaslearen azalean jartzea eta bestei irakastea. Aldi berean haientzat ikaskuntza esperientzia oso aberasgarria izango da. Bestaldetik, tutorearenpean dauden ikasleentzat aukera oro paregabea da, egun bizi dugun hezkuntza egoera honetan laguntza indibidualizatu bat edukitzea pentsaezina izaten baita askotan.

Egoera honetan familien parte hartzea eta inplikazioa oso garrantzitsua da. Familiak motibatu behar dira programa hauetan parte hartzeko, ikaskuntzan arazoak dituzten ikasleen gurasoak edo familiak batez ere.

BIKOTEEN ERAKETA

Normalean irakasleak izan ohi dira bikoteak eratzen dituztenak, haien izaten baitira ikasleak hobekien ezagutzen dituztenak.

Alde batetik, bikoteak adin ezberdinetako edota maila ezberdinetako ikasleez osatutakoak izan daitezke (croos age tutoring), beti kontuan hartu beharra dago bi ikasleen artean adin tartea oso handia ez izatea. Hau da, duten gaitasun edo eduki

maila oso ezberdina ez izatea, bestela tutorea den ikaslea aspertzea suerta daiteke, eta ez dugu ahaztu behar esperientzia hau baliagarria eta ikastekoa izan behar dela bi haurrentzat.

Horregatik, garrantzitsuagoa da gaitasunen ezberdintasuna edo diferentzia adin tartea baino. Beraz, esan daiteke maila ezberdinetako bikoteak sortzen badira gehienez bi mailako diferentzia izatea dela egokiena.

Bikoteak beraz, hizkuntza arloan lortu dituzten emaitzen araberakoak izan daitezke edota aldez aurretik programa honetarako ulermen irakurmen proba zehatzetan egin diren emaitzen araberakoak.

Emaitza hauek kontuan harturik, 3. eta 4. mailako ikasleak hartzen baditugu adibidez, bikoteak sortzerakoan hirugarren mailako emaitza hoberenak dituen ikaslea, laugarren mailako emaitza onenak dituenarekin sortuko dugu bikotea. Era honetara egingo da ikasle guztiekin.

Bestalde, bikoteak adin edo maila berdineko ikasleen artean sor daitezke (same ager tutoring). Kasu honetan pausu berdinak jarraituko dira bikoteak sortzerakoan, gela baten barruan edo ziklo bereko bi gelen artean.

Adin berdineko ikasleen bikoteak eratzerakoan, elkarrekiko rolak sortu daitezke.

Kasu hauetan tutore edo tutorepeko ikasleen rol edo lanak aldatzen doaz, lehenik batek egiten du tutorearen lana eta ondoren besteak, paperak asteka alda daitezke. Honetarako sortzen diren bikoteetan hizkuntza gaitasuna eta irakurritakoaren ulermena antzekoak izatea egokia da.

Bikote aldaketak ere, aipatzekoak dira. Hauek ez dira puntualak izango, bikote aldaketa orokorrak baizik.

Bikote aldaketa egitekotan tutore zaharrek informe bat egitea komenigarria da , bertan ikaslearen informazio eta garapen guztiak ageriko dira eta tutore berriari pasako zaizkio. Hala ere, kontuan hartu behar da bikoteen arteko irakurketak ondo funtziona dezan eta benetan lorpen positiboak egon daitezen ezinbestekoa dela

bikoteek elkarrekin denbora nahiko ematea benetako garapena gerta dadin. Bi pertsonak ondo ezagutu behar dute elkar eta bakoitza bestearen ezaugarrietara egokitu behar da. Beraz, bikote aldaketak egiteko orduan kontuz ibili behar da.

Beste alde batetik familien barruan sor daitezkeen ikasleen tutoreak kontuan hartu behar dira. Familia batetan gurasoak, anai-arrebak, osaba-izebak edota aitona-amonak izan daitezke ikasle baten tutoreak.

Garrantzia handia dauka lan hau aurrera eramateko familienganaino iristea ahalik eta informazio gehien eskainiz. Gehienetan programa hauetan parte hartzeko erraztasun gehien duten familiak, haien bizitzan modu naturalean seme-alabei proposamen kultural zein hezkuntzakoak eskaintzen dizkieten gurasoak dira. Hauengana heltzeak ez du hainbeste garrantzirik. Garrantzitsuagoa da alor honetan zailtasunak dituzten familietara iristea.

Familia horietara iristeko ahalik eta baliabide gehien jarri behar dira martxan: korreo elektronikoz informazioa bidali, haurren bitartez informazioa eskaini, modu zuzenean haiekin bilera bat egin, ikastetxeko tabloietan informazioa ipini.

ALDEZ AURRETIKO PRESTAKUNTZA

Programa honekin hasi baino lehen onuragarria izan daiteke aldez aurretiko heziketa.

Bikoteko kide bakoitzaren eginkizunak zenbat eta finkatuago egon, emaitzak hobeak izanen direla diote, honen inguruan egin diren ikerketen arabera (Cohen, Kulik y Kulik, 1982; y Topping y Ehly, 1998)

Bikoteka lan egiten hasi baino lehen, saio batzuk honetan ematea garrantzitsua da.

Ikaskide guztiak haien artean ezagutzen badira eta zer maila duten baldin badakite bikoteak prestakuntza saio hauek baino lehenago egin daitezke. Ikasleek berriz, ez badute elkar ezagutzen maila ezberdinetakoak direlako, bikoteak saioen ostean eratuko dira. Hala ere, komenigarria da kasu guztietan, tutore lana eta tutorepeko lana egingo duten ikasle guztiak elkarrekin aritzea aldez aurretiko prestaketan, honela geroago egingo dutena praktikan jartzen joango dira.

Saioak irakaslearen ustez egokiak direnak izan behar dira, baina diotenaren arabera hiru saio nahiko izan daitezke.

Hauek dira landuko diren edukiak:

Berdinen arteko tutorien oinarriak ezagutzea.

Saioak eratzen dituzten jarduerak ezagutzea eta beharrezkoa bada praktikan jartzea.

Laguntza materialak ezagutzea.

Bikoteak egin ez badira, bikote kideak elkar ezagutzea. Dagoeneko ezagutzen badira, harremana sakontzea.

Hona hemen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak egindako proposamena:

(Grupo de Investigación sobre Aprendizaje entre Iguales del Instituto de Ciencias de la Educación de la Universitat Autònoma de Barcelona, coordinado por Dr. David Duran Gisbert, 2011)

Taula 2. 1. Sesión

- Bienvenida. ¿Qué es la tutoría entre iguales? Concepto, estructuración de las actividades.	-Tras una breve exposición introductoria por parte del profesor, se pide a los alumnos que individualmente busquen razones y ejemplos que justifiquen algunas de las aseveraciones que se hacen (por ejemplo, "enseñando, se aprende").
-Ventajas para los tutores y para los tutorados.	-Se pide para cada tipo de alumnos que busquen, en pequeños grupos, qué les aportará de positivo hacer el rol respectivo. Se hace una puesta en común, remarcando por parte del profesor que todos los alumnos aprenderán
- Las cualidades del buen tutor y tutorado.	- Los tutores piensan las cinco cualidades del buen estudiante. Los tutorados piensan las cinco condiciones del buen enseñarte. Primero

	individualmente, después en parejas, agrupando parejas y, finamente poniendo en común. Conviene que las cinco cualidades de cada función queden recogidas en una hoja que presida el aula para que, ni unos ni otras, olviden qué deben hacer por ser "buenos tutores" o "buenos tutorados".

Tabla 3. 2. Sesión

- Explicación breve de las tareas por sesión.	- Importancia de la rutina de actividades para que todo el mundo sepa en todo momento qué debe hacer. Transferencia progresiva del control sobre el tiempo a dedicar a cada actividad.
- Lectura	- Interrogación y anticipación antes de leer los textos (hipótesis). Lectura en pareja PPP. Modelado del profesor con un alumno (sobre un texto puesto en transparencia) y práctica posterior en parejas.
- Comprensión lectora	- Detección de ideas y léxico. Modelado del profesor con un alumno (sobre un texto puesto en transparencia) y práctica posterior en parejas.
- Lectura expresiva	- Modelado y practica

Tabla 4. 3. Sesión

-Sistema de evaluación	- Explicación del sistema de evaluación (realización de Hojas de actividades por parte de los tutores) y presentación de la pauta de autoevaluación en pareja (material adjuntado en el Anexo).

	- Prueba individual de evaluación inicial
-Consejos para los tutores.	- Comentario de los consejos para los tutores

SAIOETAKO JARDUERAK

Prestakuntza lana egin ondoren, tutore eta tutorepekoen artean saioak hasiko dira. Komenigarria da astean behin elkartzea ordu erdiko saioetan.

Saio hauetan bikoteak elkarrekin eseriko dira. Komenigarria suerta liteke tutorea ezkerreko aldean esertzea (ezkertien kasuetan izan ezik). Bikotean bata bestearengandik ahalik eta hurbilen egotea positiboa da bertan bikote gehiago egon daitekeelako eta ozenki irakurtzeko momentuan gainontzekoak ez molestatzeko.

Lekua aproposa izatea ere oso garrantzitsua da, argi eta espazio egokia egotea. Honek garrantzi gehiago dauka familian egiten diren tutorietan, ikastetxean normalean baldintza egokiak baitaude.

Hasierako saioetan egongo diren jarduerak oso egituratuak egotea komenigarria da, denbora pasa ahala eta bakoitzak bere rola ondo ulertu duenean askatasun gehiago emango da.

Saioaren hasieran tutoreak ikaslei jarduera fitxa bat pasako die. Komenigarria izan daiteke aldez aurretik tutoreak diren ikasleak ariketak lantzea, ondoren errazagoa suerta dadin.

Lanean arituko diren ordu erdia bi zatitan banatuko da. Lehenengo 15 minutuak irakumenean oinarrituko da. Dena den, hasiera batean bien artean testuaren inguruan hitz egingo da (gaiari buruz zer dakiten adibidez), hau da, aurre ezagutzak landuko dira.

Geroago testua modu ozenean irakurriko da. Aipatu beharra dago batzuetan, hasierako saioetan edota testua zaila den momentuetan onuragarria izan daitekeela

irakasleak hasi aurretik testua modu ozenean irakurtzea. Ikasleak testua irakurrita (Pause, Prompt & Praise), metodoa erabiliko da. Honen bidez ikasleak akats bat egiten duenean tutorea isilik geratuko da ikasleak berak okertu dela ikusteko, bera erantzun egokia emateko gai ez bada pistak emango dizkio erantzun zuzena aurki arte. Amaitzeko errefortzu positibo bat emango zaio.

Bigarren hamabost minutuak testuaren ulermena lantzen ematen dira. Lehenik eta behin, ulertu ez diren hitzak aztertzen dira, beharrezkoa bada hiztegia erabiliz. Ondoren, ideia garrantzitsuenak aipatzen dira eta ulermen galdera batzuk egiten dira.

Galdera hauek maila ezberdinetakoak izan daitezke, batzuk literalak izango dira, testuan agertzen den informazio bat kopiatu beharko da bakarrik; beste batzuk berriz, interpretazioa beharko dute. Ariketak ere modu ezberdinetakoak izan daitezke: galdera ireki edo itxiak, azpimarratu, ordenatu, etbar.

Saioaren azken minutuak irakurtzeko estiloari eskainiko zaizkio, tutoreak testuaren irakurketa egoki bat eginen du, intonazio, puntuazio eta ahoskera egokiarekin eta ikaslea hau kopiatzen saiatuko da.

Hamabostaldian behin autoebaluzio bat egitea komenigarria da.

Ariketa mota hauek behin baino gehiagotan egin ondoren eta ondo barneratuta dauden momentuan, tutoreak izango dira fitxa horiek sortzen dituztenak. Aurretik landu dituztenen antzekoak izango dira eta beti superbisiopean egongo dira, batzuetan gehiagotan aritu diren tutoreengatik, eta beste batzuetan irakasleengatik. Bi fitxa egitea eskatuko zaie beti.

Jarduera hauek guztiak egiten diren bitartean, irakaslearen papera oso garrantzitsua da, berak dena superbisatuko du eta uneoro aukera edukiko du zailtasun gehiago duten bikoteei laguntzeko edota dituzten zailtasunak apuntatzeko.

BIKOTEEN AUTOEBALUAZIOA

Lehenago aipatu dugun bezala, hamabostaldian behin bikoteek autoebaluazio bat egingo dute. Ebaluazio horretan bakoitzak programarekin eta egindakoarekin pozik

dagoen ala ez aipatuko du, irakurmenari eta irakurritakoaren ulermenari dagokienez. Honetaz gain, tutorearen lana ere aztertuko da: azalpenak, modelazioa, hiztegia, etabar.

Ebaluazio honek zentzu gehiago izango du tutoreak modu askeagoan sortzen jarduerak dituenean eta saioak “bere” moduan antolatzen dituenean. Geroago bikotez aldatzea erabakitzen bada, material hauek guztiak oso erabilgarriak izando dira tutore berriarentzat. Bikoteek beti argi eduki behar dute ebaluazioa bien artean egiten dutela, ez dela tutoreak ikasleari egiten dion ebaluazio hutsa. Ikasleak ere tutorea ebalua dezake. Azkenean bien arteko erabakia izanen da.

BESTELAKO ARIKETAK

Ikusi dugun moduan, egiten diren ariketak oso gidatuak dira. Eskema finko bat dute eta tutoreek denbora haien modura antola dezaketen arren, oso antzekoak suerta daitezke saio guztiak. Hori ekiditeko bestelako ariketa batzuk sortzea egokia izan liteke.

Aurretik egin den autoebaluaziotik ideiak ateratzea oso aproposa da. Modu honetan ikasleek haien autoebaluazioetan dituzten akatsak eta nahiak ipiniko dituzte eta hortik abituz, irakasleak berak noizbehinka bestelako jarduerak aukeratu ditzake.

Beste aukera bat tutoreak elkartzea izango litzateke. Bikote batetan baino gehiagotan gai baten inguruan interesa badute, tutoreek haien artean gaia presta dezakete eta ondoren hitzalditxo txiki baten antzeko bat eman dezakete.

Familiei dagokienez, errutina hau alde batera uzteko, ikasleei edo gurasoei interesgarriak iruditzen zaizkien gaien inguruko elkarrizketak susta daiteke. Kasu hauetan ez da egokia izaten haiek sortzea. Egokiena, suertatzen direnean aprobetxatzea da.

EBALUAZIOA

Hasierako ebaluazioa:

Saioekin hasi baino lehen, ikasleei probatxo bat egingo zaie. Honela jakingo da

programa hasi aurretik zein maila zuten eta amaieran ebaluatu ahalko da garapena izan dutenen ala ez. Honetaz gain, bikoteen eraketa egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Autoebaluazioa:

Aldez aurretik aipatu dugun moduan, ebaluazio horretan bakoitzak programarekin eta egindakoarekin pozik dagoen ala ez aipatuko du, irakurmena eta irakurritakoaren ulermenari dagokienez. Honetaz gain, tutorearen lana ere aztertuko da: azalpenak, modelazioa, hiztegia, etabar.

Obserbazioak:

Lehenago esan den moduan, tutoriak egiten diren bitartean, irakasleak egoera aztertzeko denbora edukiko du, momentu horretan ikasleak behatu behar ditu eta haien garapenaren jarraipen bat egin: ondo moldatzen diren, egiten dutena ondo ulertzen duten, etabar.

Ariketak:

Saioetan zehar egiten diren ariketak ere, geroago ebaluazioa egiteko erabilgarriak izango dira. Ariketa hauek tutoreak bere modura eratzen dituenean ebaluatuko dira gehien bat. Modu honetan, ikaslearen garapena ikusiko dugu jardueren bidez eta ikaslea ebaluatuko dugu; baina honetaz gain, tutorea ere ebaluatuko dugu, bere lana nola egiten duen ikusiz. Ariketa guztiekin dossier bat egingo da. Bertan tutoreak ikusi duen garapena ipintzea komenigarria izan daiteke.

Amaierako proba:

Proba hau egitea ez du derrigorrezkoa izan behar. Azkeneko saioetan pasako den proba bat izango da eta bertan izan den garapena aztertuko da. Dena den, lehenago aipatutako dossierraren bidez ariketa guztiak bildu badira, bertan askoz informazio gehiago egonen da ikaslea eta tutorea ebaluatzeko, azkeneko probatxo horren bidez baino.

EDUKIAK (ZIKLOZ ZIKLO)

Hona hemen maila ezberdinetan bikotekako irakurmenaren bidez landuko diren edukiak;

Taula 5. Prozesu edukiak

PROZESU EDUKIAK
Hitzezko hizkuntzari dagokionez: 1. Agindu, kontakizun edo azalpen errazen azalpena eta produkzioa, inguru ezagunarekin harremanduta. 2. Esaldi sinpleen eta galderen erantzunen ulermena. 3. Egitura eta modelo ezberdinen erabilpena. 4. Irakurmen adierazkorra eta ulerkorra, testu mota ezberdinetan eta intonazio egokiarekin. Esaldi mota ezberdinen intonazio egokia. 5. Testu idatziak (asmakizun, abesti…) buruz ikastea eta azaltzea. 6. Errealitatea islatzeko gai izatea marrazki baten bidez.. 7. Ahozko mezuen produkzioa. 8. Irakurketak sortzen dituen, iritzi edo jarrera emotiboak adieraztea. 9. Testuen antzezpen eta memorizazioa.
Idatzizko hizkuntzari dagokionez: 1. Testua, irudi eta hedabideekin harremantzen du. 2. Irakurritakoaren ulermenean laguntzen duten estrategien erabilpena, testua irakurri aurretik, bitartean eta ondoren. 3. Irudietatik habiatuz testuaren inguruko hipotesiak egitea. 4. Esaldia mota eta intentzioaren arabera, intonazio eta erritmo egokien ikaskuntza. 5. Ereduetatik abiatuz, testu sinpleen eraketa. 6. Testuaren mezu orokorraren ulermena.
Hiztegiari dagokionez: 1. Adin eta mailari egokitutako hiztegiaren erabilpen eta aberasgarritasuna.

2. Mailari egokitutako sinonimo eta antonimoen ezagutza. 3. Hitzen erabilpen egokia aukeratu egoera ezberdinetan..
Gramatikari dagokionez: 1. Izen, izenondo, aditz eta esaldien erabilera. 2. Ortografia arau sinpleenak. 3. Aditz denboren ezagutza. 4. Esaldi mota eta puntuazio mota ezberdinen erabilpena.

Taula 6. Kontzeptuzko edukiak

KONTZEPTUZKO EDUKIAK
Hitzezko hizkuntzari dagokionez: 1. Hizkuntza erregistro mota ezberdinak unearen arabera. 2. Intonazio eta gorputz posizioaren garrantzia hitz eginezko adierazpenean. 3. Gorputz hizkuntzaren garrantzia
Hizkuntza idatziari dagokionez: 1. Hizkuntzaren erabilpen mota ezberdinak, testu idatziari dagokionez. 2. Narrazio testuen idazketa. 3. Testuinguru hurbilarekin harremandutako testu tipo ezberdinak.
Hiztegiari dagokionez: 1. Testuinguru Hurbilaren hiztegi espezifikoa.
Gramatikari dagokionez: 1. Ortografia eta puntuazio arau sinpleenak. 2. Hiztegi gramatikalaren erabilera. 3. Esaldi ezberdinen zentzuak intonazio eta puntuazio ezberdinen arabera.

Taula 7. Jarrera edukiak

JARRERA EDUKIAK
1. Irakurmenaren balorazioa, ezagutu eta plazeraren iturburu moduan. 2. Hitzen ahoskapen eta idazkera egokiaren interesa. 3. Irakur eta idazketaren hobekuntza nahia. 4. Testu mota ezberdinak idazteko interesa. 5. Hiztegi berria ezagutzeko interesa. 6. Testu liburuak kontsultatzeko eta informazio iturri bezala erabiltzeko interesa. 7. Tutore eta tutorepekoaren arteko kooperazio sentimendua. 8. Jasotako laguntzaren balorazioa (tutore eta tutorepeko) 9. Autoestimuaren garrantzia. 10. Bizi arauen errespetua.

BIGARREN ZIKLOA

Taula 8. Prozedura edukiak

PROZEDURAZKO EDUKIAK
HItzezko hizkuntzari dagokionez: 1. Testu tipo ezberdinen irakurmena, bai ulermenari dagokionez bai adierazpenari dagokionez, intonazio, abiadura eta erritmo egokiarekin. 2. Egindako hipotesien, egiaztapena eta birplanteamendua, irakurtzen den bitartean. 3. Irakurgaiaren gaiarekin harremandutako iritzia lantzea. 4. Ahozko mezuen produkzioa, egitura eta koherentziarekin. 5. Testuen memorizazio eta dramatizazioa, ahozko adierazpena hobetzen duten tekniken bitartez.
Idatzizko hizkuntzari dagokionez:

1 Irudi, izenburu eta testuaren egituraren bitartez, testuaren edukiaren inguruko hipotesiak sortzea. 2. Irakurmen arintasuna eta ulermena hobetzeko 3. Testu baten idazketan dauden akatsen identifikazio eta zuzenketa. 4. Testuen irakurmen egokia intonazioa kontuan hartuz. 5. Testu tipo baten identifikazioa, egitura eta aurkezpenaren arabera. 6. Ereduen laguntzaz, mota ezberdinetako testuak idaztea.
Hiztegiari dagokionez: 1. Alfabetoaren memorizazioa, eta hiztegiaren erabilera egokia. 2. Esanahi bat baino gehiago duen hitzak bereizteko gai izatea. 3. Hitz sinonimo eta antonimoen ezagutza eta erabilera egokia..
Gramatikari dagokionez: 1. Esaldi baten hitzen ezagutza. 2. Izen, izenondo, aditz eta haien harremanen ezberdintasunak. 3. Aditzen denboren erabilera. 4. Esaldi mota ezberdinen eta puntuazioaren erabilera egokia.

Taula 9. Kontzeptuzko edukiak

KONTZEPTUZKO EDUKIAK
Ahozko hizkuntzari dagokionez: 1. Ahozko adierazpenean intonazioak eta gorputz jarrerak duen garrantzia. 2. Gorputz hizkuntzaren garrantzia: keinuak, begiradak, arintasuna, etabar.
Idatzizko hizkuntzari dagokionez: 1. Testuaren esanahi orokorra, baita paragrafo eta esaldiena ere. 2. Testu mota ezberdinak: deskribapenezkoa, azalpenezkoak, literarioak, etabar. 3. Irudi eta irakurgaiaren arteko harremana. 4. Testu idatzien erregistro eta erabilpenak. 5. Idatzizko testua hedabide bezala eta informazio iturri ezberdinak hizkuntzaren erabilera anitzetan.
Hiztegiari dagokionez:

1. Hitzen arteko harremana hiztegiari dagokionez: antonimo, sinonimo, etabar. 2. Hiztegia
Gramatikari dagokionez:. 1. Oinarrizko arau ortografikoak. 3. Aditza, izenondo, artikulu eta

Taula 10. Jarrerazko edukiak

JARRERAZKO EDUKIAK
1. Irakurmenaren balorazioa, ezagutza eta plazeraren iturburu moduan. 2. Hitzen ahoskapen eta idazkera egokiaren interesa. 3. Irakur eta idazketaren hobekuntza nahia. 4. Testu mota ezberdinak idazteko interesa. 5. Hiztegi berria ezagutzeko interesa. 6. Testu liburuak kontsultatzeko eta informazio iturri bezala erabiltzeko interesa. 7. Tutore eta tutorepekoaren arteko kooperazio sentimendua. 8. Jasotako laguntzaren balorazioa (tutore eta tutorepeko) 9. Autoestimuaren garrantzia. 10. Bizi arauen errespetua. 11. Mekanografia ezagutzak 12. Gainontzeko ikaskideek irakurtzen dutenaren atentzioa 13. Hedabideen mezuen kritikak

HIRUGARREN ZIKLOA

Taula 11. Prozedurazko edukiak

PROZEDURAZKO EDUKIAK
Ahozko hizkuntzari dagokionez: 1. Tipologia ezberdinetako testuen irakurketa adierazkorra, intonazio egokia erabiliz. 2. Ahozko mezuen eraketa, argitasuna eta koherentzia kontuan edukiz. 3. Iritzi, sentimenduekin harremandutako adierazpenak. 4. Ahozko adierazpena hobetzen duten dramatizazio eta memorizazio teknikak.
Idatzizko hizkuntzari dagokionez: 1. Irudi, izenburu eta testuaren egiturarekin harremanduz hipotesiak sortuz eta testua irakurri ondoren berraztertu. 2. Testuan irakurketa adierazkorra intonazioa kontuan edukiz. 3. Testuaren ideia orokorraren ezagutza: ideia nagusien identifikazioa. 4. Mota ezberdinetako testu ezberdinen idazketa.
Hiztegiari dagokionez: 1. Hiztegiaren ezagutza eta erabiltzeko gaitasuna. 2. Alfabetoaren ordenaren erabilera hitzak antolatzerakoan. 3. Hitzen arteko harremana bere esanahiari dagokionez. 4. Testuinguruaren arabera, sinonimo eta antonimoen ezagutza.
Gramatikari dagokionez:. 1. Esaldi ezberdinen erabilera puntuazioa kontuan edukiaz

Taula 12. Kontzeptuzko edukiak

KONTZEPTUZKO EDUKIAK
Ahozko hizkuntzari dagokionez: 1. Ahozko adierazpenean, intonazioak eta gorputz jarrerak duen garrantzia.

2. Gorputz hizkuntzaren garrantzia: keinuak, begiradak, arintasuna,etabar. 3. Ahozko jarduera motak: elkarrizketak, eztabaidak eta negoziazioak.
Idatzizko hizkuntzari dagokionez: 1. Testu idatzia hedabide moduan eta informazio iturri bezala. 2. Erabilera erregistroak eta testu idatzien funtzionaltasuna. 3. Testu motak: deskribapen, instrukzio, narrazio, informazio, poesia, etabar.
Hiztegiari dagokionez: 1. Hitzen harremana haien esanahiagatik: sinonimo, antonimo etabar 2. Hiztegia
Gramatikari dagokionez: 1. Oinarrizko arau ortografikoak. 2. Esaldi mota ezberdinak: harridura, galdera etabar.

Taula 13. Jarrerazko edukiak

JARRERAZKO EDUKIAK
1. Irakurmenaren balorazioa, ezagutu eta plazeraren iturrburu moduan. 2. Hitzen ahoskapen eta idazkera egokiaren interesa. 3. Irakur eta idazketaren hobekuntza nahia. 4. Testu mota ezberdinak idazteko interesa. 5. Hiztegi berria ezagutzeko interesa. 6. Testu liburuak kontsultatzeko eta informazio iturri bezala erabiltzeko interesa. 7. Tutore eta tutorepekoaren arteko kooperazio sentimendua. 8. Jasotako laguntzaren balorazioa (tutore eta tutorepeko) 9. Autoestimuaren garrantzia. 10. Bizi arauen errespetua. 11. Mekanografia ezagutzak 12. Gainontzeko ikaskideek irakurtzen dutenaren atentzioa 13. Hedabideen mezuen kritikak

3.3 ZAILTASUNAK

Irakurketa irakasgai zaila izan da irakaskuntzan betidanik, arlo honetan zailtasunak dituzten haur asko egoten baitira orokorrean. Irakurketarekin lotura duten zailtasunak askotariko ezaugarrien araberakoak dira.

Arazo hauek gainditzea ezinbestekoa da, ikaskuntzako hurrengo urteetan eta gainontzeko alorretan oztopoak eta garapenean zailtasun handiak ez izateko.

Alde batetik, testua bera izan daiteke zailtasunen iturburua. Horrela bada, ikasleek aspektu hauekin loturiko arazoak izango dituzte: testuaren luzera, hurbiltasuna, gaiarekin ohituta ez egotea, gaiarekiko interesik ez izatea, edukia ulertzeko zailtasuna…

Bestetik, zailtasunak testua irakurri ondoren egiten diren galderetan topa daitezke: eskatutako ulermen mota, kontuan hartu beharreko irizpideak, informazio esplizituaren maila, testuaren osagaiak …

Testuaz edota honekin harremana duten galderez gain, arazoa ikasleak berak izan dezake.

Ikasle batzuk irakurtzeko zailtasun berariazkoak dituzte. Denbora luzez iraun dezaketen zailtasunak dira eta arazo neurobiologikoekin lotuta daude. Nahasmendu hauen artean: dislexia, disgrafia eta disortografia aipa ditzakegu, besteak beste.

- Disortografia:

Idazkeran ematen den akats multzoa da. Hitzetan du eragina baina ez hitzaren trazuan edo grafian. Haurrak duen zailtasuna berez ez da idaztea, behar duen hitz egokia aurkitzea baizik. Disgrafiaren barruan bi mota topa ditzakegu: naturala: (disortografia, garapen fonologikoari eta grafema fonema bihurtzeko arauei eragiten diena) eta arbitrarioa (arau ortografikoetan eragina duena)

- Disgrafia:

Idazketaren berariazko zailtasuna da. Disortografian ez bezala, honek eragina du trazuan, letren tamainan, letren eta hitzen itxura irregularrean, hitzen arteko bereizketako akatsetan eta hitzen arteko loturan.

- Dislexia:

Dislexiaren inguruko teoriak oso anitzak izan dira betidanik. Hala ere, gaur egun, teoriari ematen zaion garrantzia txikiagoa da, irakurmenean eragiten duten mekanismoen ulermenean arreta gehiago jartzen ari delarik ((Monfort, 2001)).

Aipatutako teoriak zazpi taldetan multzoka ditzakegu Estiennen (1982) sailkapenari jarraikiz:

- Irakurmenean dauden zailtasunak, arazo instrumental-funtzionalen adierazgarri bezala ulertzen dira. Hau da, ikasleari nolabaiteko heldutasuna falta zaio idazketa eta irakurketa prozesuan ikaskuntza egoki bat egin ahal izateko.
- Mediku askoren iritziz, nahaste hereditarioa da. Esan beharra dago, dislexia duten haurren artean, portzentaje handi batek honelako nahastea izan dituzten senideak dituztela, gurasoak orokorrean.
- Scarborough-en (1991) iritziz, dislexia duten pertsonen seme-alabek, nahaste hau edukitzeko aukera gehiago izan dezakete. Honetaz gain, gurasoen aldetiko estimulazio falta ere, aipatzen du.
- Aditu batzuk irakur -idazketako nahasketak zenbait ezaugarri neurologikorekin lotzen dituzte, hauek garuneko disfuntzio minimoak izango lirateke.
- Gaia ikertu duten askoren iritziz, dislexiaren arazoa “antsietatea”k sor dezake. Irakur idazketaren ikaskuntzari garrantzi handia ematen zaio haurren hasierako eskolatze momentutik. Beraz, eskolak sortzen duen estresak eta gurasoen presioak arazo hauen sortzaile izan daitezke.
- Eskolako psikologo eta soziologo batzuen aburuz, eskola bera da arazo hauen lehenengo “erruduna”.
- Beste teoria batek dio irakurtzeko zailtasunak ikaskuntza metodoekin harremana duela. Betidanik esan da “metodo globala” ez dela oso egokia dislexia duten haurrekin irakur-idazketa lantzeko. Geta liteke metodoa bera ez izatea hain garrantzitsua; bai ordea, hau aplikatzeko modua (zorroztasun maila, jarrera negatiboak arazoaren aurrean, indibidualizazio maila …)

Dislexia motak:

Aditu batzuk bi dislexia mota desberdintzeko aukera planteatzen dute; lehena, pertzepzio eta ikusmen arazoekin lotuta dagoena eta bigarrena, arazo fonologiko eta hiztegiarekin harremana duena.

Bi hauen nahastea ere, eman daiteke.

Hau da proposatzen den beste sailkapen bat:

Taula 14. Dislexia Motak

DISLEXIA MOTA ETA SORBURUA	EZAUGARRIAK
DISLEXIA EBOLUTIBOA	Arazo fonologikoen, neurologikoen eta abarren ondoriozkoa.
HARTUTAKO DISLEXIA	Garuneko gaitz baten ondoriozkoa

- Diagnostikoa:

Leximetriaren funtzioa, ikasle batek irakur idazketan dituen zailtasun kopurua eta zailtasun motak aztertzean datza.

Dislexia duten haurrek, bere adineko edo ikasgelako ikaskideekin alderatuz, maila baxuagoa ematen dute irakur idazketan.

Desberdintasun horren iturburua aurkitu beharra dago. Jatorria hauetariko bat izan daiteke: hizkuntzarekiko zailtasunak, ahozkotasuneko arazoak, garapenaren nahasteak, zailtasun kognitiboak, harremanak izateko zailtasunak …

Honetaz gain, ikasleak duen egoera familiarrak, egoera pertsonalak eta sozialak edota eskolaren ezaugarriek, garrantzi handia dute.

Aldagai hauek guztiak kontuan hartuz, haurraren diagnostikoa egin daiteke, duen arazoa aurkituz.

Ikasleen irakur idazketa ebaluatzeko zenbait test edo frogatxo badaude. Esan beharra dago gazteleraz ez dagoela material handirik eta are gutxiago oraindik, euskaraz.

Hona hemen interesgarriak suerta daitezkeen batzuk:

- Lectura Silenciosa de Fernández Huerta (1971), bakarka edo taldekakoa izan daitekeena. Testuen ulermen maila neurtzen du galderen bidez. 9-14 urteko haurrentzat zuzendua dago.
- Lectura Oral de García Hoz (1971), bakarka egitekoa. Bertan adinaren arabera banatutako testuak topa ditzakegu; baita silabak, hitzak eta esaldiak ere. Abiadura arau ezberdinak eta adinaren araberako zenbait akats ageri dira.
- Irakurmen testa, Pérez González (1978). Ikaslearen ulermena, zehaztasuna eta abiadura neurtzen ditu.
- Ortografia testa Seisdedos (1980), bakarkakoa edo taldekoa izan daitekeena. 50 esaldik osatze dute eta bertan ikasleek akatsak aurkitu behar dituzte.

- Dislexiaren ezaugarriak:

Dislexiarekin batera azaleratzen diren ezaugarriak maiztasun ezberdinekin eman daitezke. Batzuk beti eta dislexia duten ikasle guziengan aurkituko ditugu. Beste batzuk berriz, gehienengan eta gutxi batzuk soilik, ikasle batzuengan.

Beti ematen diren ezaugarriak: zailtasunak hizkuntza idatzian, zailtasun larriak ortografian, ikaste mantsoa irakurketan eta bigarren hizkuntzak ikasteko eta ulertzeko zailtasunak.

Maiz ematen diren ezaugarriak: zailtasunak kalkuluan, jardueren jarraibide eta sekuentzia konplexuak jarraitzeko zailtasunak, testu idatziak ulertzeko zailtasunak eta gorabehera handiak gaitasunetan.

Batzuetan ematen diren ezaugarriak: zailtasunak ahozko hizkuntzan, zailtasunak espazioaren eta distantzien pertzepzioan, ezkerraren eta eskuinaren arteko nahasketa eta arazoak erritmoarekin eta musika-hizkuntzekin.

- Prebentzioa:

Prebentzioari dagokionez, komenigarria da lehenik eta behin “arrisku taldea”

finkatzea. Hau da, geroari begira irakur idazketan arazoak izan ditzaketen haurrak diagnostikatzea:

- Hizkuntzarekiko zailtasunak eta hitz egiteko zailtasunak
- Talde lanak egiteko zailtasun handiak (arreta falta, hiperaktibitatea, mantsotasuna)
- Psikomotrizitate arazoak, motrizitate finean gehien bat
- Aurrekari familiarrak (Gurasoak, anaia-arrebak)

Argi eduki behar dugu, "arrisku talde" honetan egoteak ez duela suposatzen taldearekiko inolako bereizketarik, nolabaiteko arreta goiztiarra eta irakur idazketaren garapena sakonki aztertzea baizik.

Bestalde, ikasgelan ere zenbait neurri har daitezke. Mota honetako arazoak dituzten ikasleentzat hezkuntza erantzunak garrantzi handia dauka. Zenbait aspektu kontuan hartzea eta haiekin landuko den metodologia egokitzea ezinbestekoa dira klasea ematerakoan:

- Ikasleak gelan duen kokapena kontuan hartu behar dugu, irakaslearengandik ahalik eta hurbilen egotea berarentzat positiboa izanen da.
- Metodologia inklusiboa sustatzea: ikaskideen arteko tutoretzak, talde elkarreragileak, tertuliak …
- Testu idatziari aukerak ematea: entzumen edota ikusmen kanalak. Atal hau oso garrantzitsua da, eskolarizazio garaian euskarri didaktiko gehienak testu idatzietan oinarritzen baitira. Hau horrela izanik, dislexia duten ikasleek etengabeko arazoak izaten dituzte. Testu mota alternatiboak eskaintzen badizkiegu askoz erosoago sentituko dira.
- Argibideak azaltzeko modua: sekuentziaka azaltzea, irakasleak ozenki irakurtzea…
- Denboraren malgutasuna: jarduerak egiteko denbora gehiago ematea, irakurri aurretik denboraz abisatzea …

- Irakurketa eta idazketan:

- Gain ikasketa egitea: hau da, irakurketa eta idazketa berriro ikastea baina erritmoa ikaslearen ezaugarrietara egokituz eta hasieratik akatsik gabe landuz.
- Metodo sintetikoa erabiltzea irakur idazketa lantzeko.
- Testu luzeak ez ematea eta paragrafo ezberdinetan ondo bereiztea.
- Zuzenketak egiterakoan akatsa guztiak batera zuzendu ordez, gai horretan lantzen ari direnak zuzentzea.

Dena den, kontuz ibili behar da. Ikasleei ez dizkiegu ariketa errazak eta sinpleak eman behar, eta lan zama banatu baizik.

- Interbentzioa:

Dislexia duten haurren interbentzioari dagokionez, ikuspegi ezberdin asko dago. Hauek guztiak hiru multzotan bana ditzakegu.

- *Sintomatologiaren ikuspegia:*

Ikuspegi honek suposatutzat ematen du, nahasteen jatorria ikaslearen baitan dagoela, hau da pertsonarengan. Hala ere, ez du baztertzen kanpotik datozen faktore ezberdinek eragin dezaketenik .

Ikuspegi honen barruan bi azpimultzo bereiz ditzakegu.

- Batzuk modu analitiko batez aztertzen dituzte nahasteak, metodo fonetikografikoak jarraituz.
- Beste batzuk berriz, bestelako faktoreak kontuan hartzen dituzte.
-
- *Ikuspegi psikoterapeutikoa:*

Honen baitan beste bi multzo daude

- Lehenengoak ikuspegi psikoterapeutikoa, ahozko eta idatzizko ariketekin nahasten ditu.

- Bigarrenak berriz, ikuspegi psikoterapeutikoa kontuan hartzen du bakarrik.

- *Ikuspegi pedagogikoa*:

Ikuspegi hau, ikaskuntzan edota berrikaskuntzan oinarritzen da.

- Jarduerak:

Orain arte eman dugun informazioaren bidez, ikus dezakegu irakur idazketako nahasten artean ez dagoela arazo soil bat. Honen ondorioz, ez da konponbide bakar bat egongo.

Nahaste mota hauek lantzeko ariketa mota ezberdin asko dago. Garrantzitsuenak edo erabilienak aipatuko ditugu.

Eragiten duten bestelako faktoreen araberakoak:

- Atentzioa: Ikaslearen atentzioa lantzeko eta estimulatzeko ariketa oso globalak landu behar dira, diskriminatzeko gaitasun orokorretan oinarrituta (entzumena, ikusmena, ukimena). Gutxika estimulu berriak gehitzen joango dira, ahozko hizkuntzarekin eta forma grafikoekin harremanetan sartuko direnak. Psikomotrizitate saioak egitea ere, komenigarria suerta daiteke.
- Ikusmenaren kontrola: Esan beharra dago begien mugimendua lantzea oso kontu zaila eta konplexua dela. Autore batzuk haien ariketetan begien mugimendua lantzeko jarduerak erabiltzen dituzte irakurketan.
- Ikusmenaren pertzepzioa: Ikaslea estimulu grafikoak ahalik eta hobekien desberdintzea da helburua. Oinarrizkoenetatik konplexuetaraino (orientazio espaziala, ezker eskuina, gora eta behera). Gutxika letrak, hitzak eta silabak lantzen dira.
- Entzumenaren diskriminazioa: Soinu ezberdinen diskriminazioa landu behar da, estimulu solteetatik ahozko estimuluetaraino. Soinuetatik fonemetara pasatzen da eta ondoren hitzetara.

- Denboraren antolaketa: Normalean antolaketa lantzeko, historiatxoak erabiltzen dira, haurrek hauen atalak modu logiko batean ordenatu behar dituzte ezkerretik eskuinera.

Ahozko hizkuntzarekin lotutako jarduerak:

Normalean irakur idazketan nahasteak dituzten haurrek, ahozkotasunean arazoak izaten dituzte baita ere. Horregatik, honekin lotura duten ariketak egitea ezinbestekoa da.

- Kontzientzia fonologikoa: Hau lantzeko jarduera ezberdinak plantea daitezke, "Ikusi makusi" jokoa, hitzak silabaka bereiztea, txaloen bitartez silabak bereiztea edota errimak lantzea.
- Kontzientzia sintaktikoa: Errepresentazio grafikoak erabiltzen dira, benetako marrazkiak sinboloekin nahastuta.

Ikaskuntza jarduerak:

- *Estimuluen aurkezpen multisensoriala*:
- Keinu laguntzak: Fonema bakoitza, eskuarekin egiten den keinu batekin identifikatzen da. Normalean keinu horrek fonemaren antzeko itxura dauka.
- Laguntza grafikoak: Idatzitako testuetan, ikasleek zailtasunak dituzten elementuak nabarmentzen dira, gutxika desagertzen joango direnak.
- Harreman semantikoak: Fonema bakoitza, naturako soinu batekin lotzen da.
- Ukipen laguntza: Letra guztien marrazkiak egiten dira eta ondoren mozten dira. Modu honetan ikasleak ukipenaren euskarria izango du.
- *Konbinaketa manipulatiboa:*
- Letra mugikorrak: Egurrezko eta kartoizko letrak.
- Koloretako letrak

Goitik beherako prozesuen jarduerak:

- Aurretiko informazio batekin lotura duten hitzen irakurketa. Adibidez, haurrari

hitz zerrenda bat aurkezten zaio, eta animalia bat agertzen den bakoitzean eskua altxatu beharko du.

- Testu bat irakurri aurretik, gaiaren inguruko sarreratxo bat egitea beti .
- Ikasleari testu bat irakurri aurretik, gaiaren inguruan informazioa bilatzeko eskatzea.
- Hitzak edo hitzen zatiak falta zaizkien esaldiak irakurri.

Amaitzeko, irakur idazketan atzerapen handia duten ikasleak ere, kontuan hartu behar ditugu. Ikasle hauek ez dute inolako nahasmendurik baina arrazoi ezberdinengatik atzerapena daukate irakur idazketa prozesuan.

Dislexia neurobiologikoa duten haurrek hainbeste arazo izan ditzakete irakurtzen ikasteko zailtasunak dituzten ikasleek.

Arrazoiak ezberdinak izan daitezke:

- Lexikoa gutxi garatu badute
- Abilezia fonologiko eskasak badituzte
- Liburuekin harreman txikia izan badute
- Pertsona helduekin batera gutxi irakurri badute
- Intentsitaterik gabeko irakaskuntza desegokia izan badute
- Ez badituzte material eta metodo egokiak erabili haien irakurketa idazketa prozesuan

4. PRAKTIKA

4. 1 FRANZISKO DEUNA IKASTETXEA

Bikotekako irakurketa aztertu ondoren, esan beharra dago Euskal Herriko eta Kataluniako zenbait ikastetxeetan errealitatera eramaten dutela praktika hau.

Proiektua Katalunian sortu zen eta egun Euskal Herrira iristen ari da.

Nafarroan zenbait ikastetxek aurrera daramate bikoteka irakurtzeko proiektua. Frantzisko Deuna ikastetxean, hain zuzen ere, kurtso osoa daramate lan honekin. Egun, hezkuntza-praktika honetan interesa adierazi duen ikastetxeen sareko partaide bihurtu da.

Bertan, hiru maila ezberdinek lan egiten dute bikotekako irakurketan: 1. mailako talde bat, eta 5. eta 6. mailako beste bi talde.

Ikastetxe honetan bikotekako irakurketa saio batzuk ikusteko aukera izan dut.

Frantzisko Deuna ikastetxean Katalunian landutako programa dute gidari bezala, baina normala den moduan, zenbait aldaketa egiten dituzte eta bere modura antolatzen dute programa.

Dakigunez, bikoteka irakurtzea berdinen arteko irakurketa lantzeko eta gaitasunak hobetzeko programa bat da.

Ikasleek bikoteak osatzen dituzte eta horien barruan bat tutorea izango da eta bestea tutorepekoa; honela, bien artean landuko dute irakurketa eta tutoreak gidatuko du tutorepekoa. Honetaz gain, bi ikasleek bestelako tutoreak izango dituzte etxean. Tutoreak, etxeko tutorearekin, gelan beste ikaslearekin landuko dituzte testuak birpasatuko ditu etxean, eta tutorepekoak beste edozein testu landuko du bere tutorearekin.

Ikastetxe honetan aurten hasi ziren hezkuntza praktika hau martxan jartzen. Honetarako inplikatuak zeuden taldeetako irakasleen, ikasleen eta familien parte hartzea ezinbestekoa izan zen.

Hasieratik hiru esparruen inplikazioa oso garrantzitsua izan zen, eta praktikara eraman aurretik familiek formakuntza jaso behar izan zuten. Bertan, programa zertan datzan, helburuak zein ziren eta haien lana etxean zein izango zen ikasi zuten.

Behin familia guztiak lan egiteko prest zeudela, ikasleen prestakuntza saioa iritsi zen. Gurasoen kasuen bezala, programa zertan zetzan eta zituen helburuak azaldu zitzaien. Ikasle guztien artean haien iritziz, tutoreen eta tutorepekoen jarrera eta portaera zein izan behar zen erabaki zuten, eta horma-irudi bat osatu zuten, horman ipintzeko eta saio guztietan egin beharrekoa argi edukitzeko.

Geroago, bikoteen eraketa antolatu zen. Nik aztertu dudan gelan, bikoteak klase-kideen artean osatu ziren, bikote mota ezberdinak sortuz. Bikote batzuen artean tutorepekoek zailtasun handiak zituzten. Beraz, tutorepekoak benetan laguntzeko gai izan zitezkeen beste ikasle batzuekin ipini zituzten (desberdintasuna oso handia izan gabe, beti ere). Beste bikote batzuen kasuan berriz, bi ikasleek tutore zein tutorepekoa antzeko maila zuten. Hala ere, modu honetan asko ikasten zuten batak bestearengandik.

Bikoteka irakurtzeko saioak, bai gazteleraz bai euskaraz landu egiten dituzte.

Gainera, eskola honetan berritasun bat erabiltzen dute eta testuak paperean landu ordez, askotan “tablet”etan lantzen dituzte. Modu honetan ikasleek teknologia berrietara egokitzen joaten dira aldi berean.

4. 2 SAIAOREN BEHAKETA

Landutako testua:

Ikasleak gelara iritsi orduko ikasgela bikoteka esertzeko antolatuta dago. Ikasleak binaka eseri dira, tutore bakoitza bere tutorepekoarekin. Gelan hemeretzi ikasle daudenez, hirukote bat ere osatu dute. Bertan, bi ikasle dira tutoreak eta bat tutorepekoa. Irakasleak testua banatu die, dagoeneko tutoreak diren ikasleak etxean testua landuta zuten.

Kasu honetan testua gazteleraz idatzita zegoen, ikasgai honetako saioan baitzeuden. “El caracol” izeneko testu laburra zen, hogei bat lerrokoa, eta bertan barraskilo baten

istoriotxo bat ageri zen, baina aldi berean, matematikako buruketa bat aurkitu zitekeen, modu inplizituan. (Ikus 1. Eranskinean)

Lanari ekin zioten, eta hasteko bi ikasleen artean irakurri aurretiko galderak erantzun zituzten, tutoreek aldez aurretik testua landuta zutenez, tutorepekoak gidatzen zituzten hasieratik.

Ondoren, tutoreek modu ozenean irakurri zuten testua, intonazio egokiz, geldiune guztiak kontuan hartuz eta ahoskera aproposaz. Aurretik etxean entsaiatua zuten.

Geroago, errepikapen irakurketa bat egin zuten, tutoreek esaldiak modu egokian irakurtzen zituzten eta tutorepekoek errepikatzen zituzten. Honela, testu osoa irakurri arte. Behin tutoreak irakurrita eta tutorepekoak eredua ikusi ondoren errepikatuta, tutorepeko ikasleak testuak bakarrik irakurtzen hasi ziren. Irakurtzen zuten bitartean, tutoreak ziren ikasleak eskua sorbalda gainean jartzen zieten tutorepekoei eta zerbait gaizki irakurtzen bazuten toke antzeko bat egiten zieten. Honela, tutorepeko ikasleak zerbait gaizki irakurtzen ari zirela ohartzen ziren. Arazoa bakarrik konpontzeko gai ba ziren, aurrera jarraitzen zuten irakurtzen eta bestela tutoreek pistak ematen zizkieten, baina inoiz erantzun zuzena eman gabe.

Irakurketa sakonki landu eta gero, irakurri ondorengo galderak erantzuteari ekin zioten, galdera hauek bi ikasleen artean egiten zituzten baina beti tutoreak gidatu egiten zituen, zegoeneko landuta zituelako. Tutoreek laguntza handia ematen zieten haien ikaskideei eta azalpenak emateko ahalik eta estrategia gehien erabiltzen zituzten.

Landutako testuan ikus dezakegu, ipuin amaieran buruketa antzeko bat ageri dela. Barraskiloak sei metro igo behar zituen, eta egunez hiru igotzen bazituen, gauez bi jaisten zituen. Ikasleek barraskiloari igotzea zenbat egun kostatzen zitzaion jakin behar zuten.

Ikusitako bikote askotan, tutorepeko ikasleek ez zuten argi ikusten arazoa ebazteko egin beharrekoa. Beraz, tutoreek azaltzen saiatzen ziren. Honetarako, mota guztietako estrategiak erabili zituzten: batzuk paper batean egiten zieten marrazkia, beste batzuk mahaian gora eta bera ibiltzen ziren hatzekin … tutorepekoak ulertzea lortu arte.

Amaitzeko, bi ikasleen artean galdera osagarriak egin zituzten, momentu guztietan bezala, tutoreak tutorepekoak gidatzen zituztela.

Behin lan guztia amaituta, irakasleak zenbait ikasleren lanak bildu eta denen artean komentatu zituzten. Gelan arbela digitala erabiltzeko aukera zutenez, aztertuko ziren ariketak arbela digitalean ipintzen ziren ikasle guztiek ikusi ahal izateko.

Ondorioak:

Saio honetan ikusitako guztiarekin ondorio ugari ateratzeko aukera eduki dut, baina pertsonalki garrantzitsuenak iruditzen zaizkidanak azalduko ditut.

Lehenik eta behin, aipatzekoa da bikoteen artean sortzen den konplizitatea. Tutoreak diren ikasleak benetan inplikatu egiten dira eta izugarrizko esfortzuak egiten dituzte ikaskideak irakurritakoa uler dezan. Tutorepekoek momentu guztietan errespetatzen dituzte haien ikaskideen azalpenak eta interes handia jartzen dute.

Hau gertatzen da berdinen arteko tutoretzak direlako. Ikasleek tutorea haiek bezalako pertsonatzat hartzen dute, ez "irakasle" baten antzera eta horrek asko motibatzen ditu.

Bestalde, ikasleek proiektu honen bitartez autonomia handia lortzen dute, haiek bakarrik egiten baitute lan guztia. Irakaslea gidari antzekoa da bakarrik, baina ez dizkie inoiz erantzunak emango. Honela, bikoteen artean arazo guztiak ebaztea lortzen dute. Honek geroari begira, arazo zein lan ezberdinen aurrean autonomia pertsonala edukitzeko aukera eskaintzen die. Gaur egun, askotan ikasleak gehiegi babesten ditugu eta ez diegu benetan autonomia pertsonala garatzen uzten.

Honetaz gain, familiek proiektu honetan duten inportantzia eta inplikazioa oso garrantzitsua da. Modu honetan, lan jarraitua egiten da etxetik eskolara, eta eskolatik etxera. Tutoreek benetan lantzen dituzte etxeko tutoreekin gelan azaldu beharrezko testuak, eta tutorepekoak testu gehiago lantzen aritzen dira etxean. Familietatik inplikazioa eskasa egongo balitz, kasu batzuetan zaila suertatuko litzateke proiektuarekin benetan aurrera jarraitzeko.

Honek aldi berean, familia eta ikastetxearen arteko harremanak estutzen ditu, baita familiek ikasleek ikaste garapen prozesuan duten parte hartzea.

Testu guztietan ikusi dugun moduan, egitura modu berdinean antolatuta dago, irakurri aurretiko galdera, irakurri ondorengo galderak eta ariketa osagarria. Planteamendu honetan ikus dezakegu ikasleek estrategia ugari lantzen dituztela.

Isabel Solek planteatzen dituen zenbait estrategia argi ikusten dira:

- Aldez aurreko ezagutza piztu

Garrantzitsua da haurrek dituzten aldez aurretiko ezagutzak zehaztea. Hau eguneratzeko eta pizteko zenbait jarduera egin daitezke

Ikasleek testuak landu aurretik, guztien artean komentarioak egiten dituzte gaiaren inguruan, nolabait motibatzeko eta dakitena eta ez dakitena ikusteko.

- Testuari buruzko predikzioak egin

- *Irakurri aurretik predikzioak egin daitezke, nor bere esperientzietan eta testuaren ezaugarrietan oinarrituz*
- *Hipotesiak botatzeak, arriskatzea suposatzen du*
- *Estrategia hau testu mota ezberdinekin lantzea ezinbestekoa da*

Argi ikusten da, irakurri aurretiko galderen helburua hauxe bera dela, ikasleek testuaren inguruko predikzioak egitea.

Bestalde, irakurri ondoren egiten diren galderetan ere, estrategia ezberdinak topa ditzakegu. Normalean galdera ezberdinak izaten dira baina beti helburu berdina aurkitzen dugu: ideia nagusia edo gaia identifikatzeko galderak, laburpen bat egiteko jarduerak edota informazio ezberdinekin inferentziak egiteko galderak.

Beraz, argi dago bikotekako irakurketaren bitartez ikasleek estrategia ezberdinak lantzen dituztela irakurketari dagokionez. Modu honetan irakurritakoaren ulermena hobetzen joaten dira. Honetaz gain, ozenki irakurtzea ere lantzen dute saio guztietan, arintasuna hobetuz. Geroari begira, honek positiboki eragingo die irakurritakoaren ulermenean ere.

Bestalde, ikasleen artean harremanak estutzen dira eta haien artean gai dira arazoak konpontzeko, autonomia puntu handia lortuz.

Amaitzeko familiaren barruan ere, ikas harremanak hobetzen dira eta ikastetxe eta familien arteko loturak estutu egiten dira.

4.3 JARDUERAK

Behin Frantzisko Deunan landutakoa ikusita, eta benetan bikotekako irakurketa praktikan nola garatzen den ikusita, garrantzitsua suerta litzateke bikoteko irakurketa lantzeko zenbait testu sortzea. Pertsonalki oso programa aberasgarria eta egokia iruditzen zait irakurketa lantzeko. Esan beharra dago testuei dagokionez, ezinbestekoa iruditzen zaidala testu mota guztiak lantzea. Horregatik, testu tipo bakoitzeko, testu bat lantzen saiatuko naiz.

1. *ERREZETA (Ikus 2. eranskina)*

Lehenengoa errezetaren testua da, gazta tarta baten errezeta. Bertan, behar diren osagaiak aurki ditzakegu batetik eta egin behar den elaborazio edo prozedura, bestetik. Testu mota hauek lantzea garrantzitsua da, ikasleek geroari begira egunerokotasunean topa dezaketen testu erreal bat delako, eta garrantzitsua da momentu guztietan ikaslea errealitatera hurbildu behar dugula gogoratzea. Testu honen bitartez ikasleek testu preskribtiboak eta zerrendak dituzten testuak lantzeko aukera izango dute aldi berean.

Bikotekako irakurketa guztietan bezala, hasieran irakurri aurretiko galderak topa ditzakegu. Hauen bitartez, errezeta baten inguruan aurretik dakitena islatuko dute, eta aldi berean testu mota ezberdinen ezberdintasunak ere, landuko dituzte.

Ondoren, irakurri bitarteko galderak landu dira. Horien bitartez estrategia ezberdinak jorratuko dituzte. Lehenengo galderan ideia nagusia ateratzen saiatuko dira, eta kasu honetan beste testu batzuekin alderatuz, ezberdina izango da, errezetaren osagai

nagusia zein den lortu behar dutelako. Hurrengo galderekin testuan bertan dauden eduki ezberdinen arteko erlazioak, harremanak eta inferentziak egin beharko dituzte.

Beste galdera batzuen bitartez, lexikoa ere landuko dute, adibidez “gainerre” hitza.

Azkeneko galderen bitartez ikasleek, testuan aurkitu dutena kanpotik dakitenarekin lotu beharko dute.

Beraz, honen bitartez, testu mota ezberdinak landuko dituzte eta aldi berean irakurketaren ulermena garatzeko zenbait estrategia landuko dira

2. *ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA (Ikus 3. eranskina)*

Testu hau oso interesgarria da ikasleekin lantzeko. Lehenago aipatu dugun bezala, ikaslea errealitatera hurbiltzea da helburu garrantzitsu bat eta testu hau oso baliagarria izan daiteke ikasleen bizitzan, honen antzeko asko topa baititzakete.

Testuak hiri garraio eta zonalde urdinaren inguruko informazio islatzen digu. Informazioa eskaintzen digun testu bat da beraz, hau da, testu informatiboa. Baina egia esan, ez da orokorrean haurrek ikastolan topatzen dituzten informazio testuak bezalakoa, testu etena baita. Horregatik garrantzitsua da honelako testuak lantzea, eta betikoetatik pixka bat ateratzea.

Testuaren lehenengo galderen bitartez, hau da irakurri aurretiko galderen bitartez, ikasleak zonalde urdina, hiri garraioa eta testu mota hauen inguruan dituen aurre ezagutzak ikusiko ditugu.

Irakurri ondorengo galderen bitartez, testu mota hauetan lor daitekeen informazioa lortzeko estrategiak erabiltzea izango da helburua. Testua ulertzea eta bertatik ahalik eta informazio gehien ateratzea. Honetaz gain eta aldi berean, planoen lanketa bat egingo da, eta hauen erabilera jorratuko da.

Ondorioz esan daiteke lantzeko oso testu interesgarria dela, honen bitartez aldi beran esparru ezberdinak landu ditzakegulako.

3. LA MUJER PAJARO (Anexo 3)

Este texto, como claramente podemos ver, es un texto de tipo literario. Nos cuenta la historia de una “mujer pájaro”, una chica a la que al nacer les salieron alas, todo el vecindario quería que sus padres se las cortaran, pero ellos se negaban una y otra vez, el vecindario estaba muy enfadado hasta que los padres decidieron que querían enseñar a volar a su hija, y por eso no le cortaban las alas.

Mediante este texto a la vez que trabajamos este tipo de texto, podemos trabajar diferentes valores. Por eso mismo es un texto interesante para trabajar con los alumnos.

En las primeras preguntas, trabajaremos al mismo tiempo, los diferentes tipos de texto, y también sus conocimientos sobre situaciones parecidas a las de la pequeña historia.

En las diferentes preguntas que se formulan una vez leído el texto, se intenta que el alumno comprenda la situación que el cuento presenta, y que comprenda realmente los que nos quiere decir. En este caso las ideas no aparecen explícitamente, por eso debemos de trabajas las ideas implícitas, y los alumnos deben ser capaces de comprenderlas.

La lectura es una herramienta muy interesante, sabemos que el primer objetivo de este tipo de programa “leer en parejas”, es conseguir un mejor nivel de lectura, y una buena compresión de lo leído, pero al mismo tiempo podemos trabajar muchos otro aspectos. Los testos pueden ser muy enriquecedores y aportar muchas otros valores a los alumnos.

Por eso es importante elegir bien los testo que queremos trabajar en clase, para poder abarcar todas las áreas que podamos.

3. *DEFINICIÓN (Anexo 4)*

Este ultimo texto, es una definición, es decir un texto expositivo. Es muy importante trabajar este tipo y la vez poder trabajar también, la utilidad de los diccionarios. Como antes hemos mencionado con otros texto, este también es uno de los que los alumnos podrán dar mucho uso en su día a día. Si nos referimos a su vida escolar, enseguida comenzaran a ver y trabajar diferentes definiciones en cualquier momento.

En las primeras preguntas, los conocimientos que tienen los alumnos sobre estos textos, y al mismo tiempo trabajaremos la importancia de la ilustración.

En las siguientes preguntas, se le dará importancia también al tipo de texto, y al mismo tiempo los alumnos trabajaran con el diccionario, un elemento muy importante en el proceso de escolarización y en su futuro. Seguidamente se tratara que los alumnos encuentren diferentes informaciones en el texto y que sean capaces de relacionarlas y hacer inferencias entre ella. De este modo también trabajaremos estrategias de la comprensión de lectura.

Por ultimo, este texto también nos dará la oportunidad de poder trabajar con los mapas.

ONDORIOAK ETA GALDERA IREKIAK

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna abiapuntua izanik, irakurriaren ulermena da lan honen gai nagusia da. Hezkuntzan duen garrantzia uka ezina da, hortaz jorratu behar den alor bat dela argi dago. Irakurketak eta are zehatzago irakurriaren ulermenak egun Curriculumaren arlo gehienetan eragiten du, Lehen Hezkuntzan dauden euskarri teoriko gehienak modu idatzian aurkezten baitira.

Horregatik hautatu dut gai hau lantzeko, nire aburuz irakasle ikasketak amaitu ondoren irakurketaren inguruko ezagutza batzuk izatea ezinbestekoa baita.

Lana atal ezberdinetan banatu da, lehenengo zatian marko teorikoa dugu, beharrezkoa baita benetan gaia ulertzeko, oinarri teoriko bat ezagutzea.

Egun hizkuntzaren barnean lau alor bereizten dira, hau da hizkuntza erabiltzen dugun lau esparru ezberdin: publikoa, pertsonala, profesionala eta hezkuntzako. Hauetan guztietan modu ezberdinean erabiltzen da hizkuntza. Lan honetan Lehen Hezkuntzako haurren egoeran zentratuko garenez esan beharra dago, haurrek bere bizitzan oraindik bi esparru soilik erabiltzen dituztela, irakurtzea esperientzia literario moduan, norberaren gozamendurako eta irakurtzea informazio eskuratzeko eta erabiltzeko, hau da irakur dezakete plazeragatik edota ikasteko. Oso garrantzitsua da kontu honetan arreta handiz ibiltzea, arriskutsua izan daiteke ikasleek bi egoera horiek nahastea eta irakurketa beti eskolarekin harremantzea, soilik ikasteko tresna bezala erabiltzea. Hortaz eskolan bertan lan handia egin behar da gai honekin, ikasleei benetan bere unea utzi behar diegu irakurketaz gozatzeko eta bere momentua irakurketarengandik ikasteko, honetarako garrantzitsua da lanean gaudenean lantzeko ikasleek gustuko dituzten liburuak ematea, nahasteko modu bat izango baita. Beraz argi desberdindu behar dira bi une horiek ikasleak honela irakurketa benetan maita dezan.

Aipatzekoak dira irakurketan ematen diren prozesu ezberdinak, ezinbestekoa da hauek ezagutzea benetan ikasleek nola ikasten duten ezagutzeko eta hortik abiatuz irakaskuntza moldatzeko. Irakurketa lantzeko estrategia ezberdinak landuko dira, ikasleek hauek menpera ditzaten eta benetan irakurtzen dutena ondo barnera dezaten.

Irakurketak eta honen ulermenak duen garrantzia jakinda eta geroari begira ikasleei eragin handia ekar diezaiekela jakinik, eskoletan benetan gai hau lantzea ezinbestekoa da. Honetarako ikastetxe ezberdinetan berrikuntza programak erabiltzen dituzte ikasleekin irakurketa modu tradizionaletik at, beste era batean lantzeko. Besteak beste: irakurketa dialogikoa, talde elkarreragileak edota bikotekako irakurketa aipatzekoak dira.

Benetan oso garrantzitsua da berrikuntza hauek eskoletan erabiltzea, gizartea aldatzen doan heinean, irakaskuntza aldatzen joan behar baita aldi berean, ezin gara metodo zaharkituetan geldirik gelditu, ikasleei aukera berriak eskaini behar zaizkie.

Bestalde irakurketaren ikaskuntzak zailtasunak ekarri ditu betidanik hezkuntzan, eta haur askorentzat gainditzeko prozesu zail bat izan da.

Ikasleen arazoak arrazoi ezberdinengatikoak izan daitezke, bai ikaskuntza nahasteak dituztelako (Dislexia) edota irakur- idazketa prozesuan atzerapena dutelako.

Bi ikasle mota hauei emango zaien hezkuntza erantzuna ezberdina izango da, baina argi eduki behar dugu benetan gaiak duen garrantziaz eta ahalik eta baliabide gehien jarri behar ditugu arazoa gaindi dezaten.

Ikaskuntza nahasteak dituzten ikasleen kasuan, beti argi eduki behar dugu ikasleek arazo neurologiko bat dutela, eta ez dela nagikeri edo interes falta. Ikasleek benetako arazo bat dute eta duen garrantzia eman behar diegu. Mota honetako ikasleek eskolatze prozesu osoan zailtasun handiak topatuko dituzte, lehenago aipatu dugun moduan hezkuntza sisteman eta are gehiago Lehen Hezkuntzan eskuarri teoriko gehienak modu idatzian topatzen baititugu. Hortaz ahalik eta baliabide gehien eskaini behar dizkiegu.

Laburbilduz, irakurketaren ulermenaren gaia eskolan garrantzi handia duela argi utzi dugu, irakurketak ikasleen bizitza osoan paper oso garrantzitsu bat jokatuko baitu. Beraz lehenik haurrak irakurketarekiko motibatu behar ditugu eta benetan irakurketarekin goza daitekeela erakutsi behar diegu, ez dugu inoiz irakurketa soilik ikaskuntzarekin lotu behar.

Benetan ikasleek irakurketa ondo menderatzea helburu izanik, ezinbestekoa da eskola zein ikasgeletan benetan iniziatiba berriak sortzea arazoa gainditzeko.

ERREFERENTZIAK

Consejo de Europa (2002). *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación.* Madrid: Secretaría General Técnica del MECD y Grupo ANAYA.

Durán, D. (Koord.) (2011). *Bikoteka irakurtzen. Berdinen arteko tutoretza programa, ikasle eta familiekin irakurtzeko gaitasuna hobetzeko.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2010). *Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza. Jardunbide egokien gidaliburua.* Hezkuntza, Unibertsitare eta Ikerketa Saila. . [Eskuragarri (2013/05/13): http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100009e_Pub_EJ_ensenanza_lectura_e.pdf]

Iza, L. (2007). *Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.* Iruña: Nafar Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Ministerio de Educación y Ciencia. (1993). *Escribir y leer.* Barcelona: Edelvives.

Monfort, M. (2001). Los trastornos del aprendizaje del lenguaje escrito. En Peña Casanova (ed.), *Manual de logopedia*(345-368) . Barcelona: Masson.

Sole, I (1992) . *Estrategias de lectura.* Barcelona: Graó

ERANSKINAK

1. ERANSKINA

Antes de leer

1.- Observad el texto y fijaos bien en la imagen y en la última pregunta remarcada.
¿Qué tipo de texto creéis que es?

_____

2.- ¿De qué creéis que trata este texto?_____

EL CARACOL

Cuando yo era todavía un pequeño caracol ocurrió una cosa que podía haber cambiado mi vida para siempre. Estaba un día paseando por los alrededores de mi casa, cuando en un descuido tropecé con un objeto grande y pesado. Se trataba de un gran zapato negro, perteneciente a algún ser humano que estaba paseando por el campo. Todos mis compañeros echaron a correr y a gritar. Yo no tuve la misma suerte.

Tropecé y caí en un gran pozo de 6 metros de profundidad. Al caer, me estrujé el cerebro hasta encontrar una idea de cómo salir de aquella oscuridad.

Estuve haciendo flexiones para que la subida me fuera más fácil. Comencé a ascender al amanecer. Conseguí subir 3 metros, pero por la noche descendía 2 metros. Al cabo del tiempo, pude salir al fin de ese gran pozo. Pero estaba tan cansado que perdí la cuenta de los días que tardé en salir. **¿Podéis ayudarme a averiguarlo?**

Fuente bibliográfica: "Dale que dale a la lengua". Victor Moreno. Editorial Pamiela

Después de leer

1.- ¿Cuántos días tardó el caracol en salir del gran pozo?_____

2.- ¿En qué lugar ocurre esta historia?

_____

Leemos en pareja

3.- ¿Qué quiere decir en el texto "se estrujó el cerebro"?_____

_____

4.- Hay expresiones en las que aparece la palabra **"cerebro"** para decir cosas distintas. **Reescribid** las siguientes frases utilizando esta palabra.

- Ella fue quien planeó la operación. ***Ella fue*** _____
- La próxima vez, piensa antes de actuar _____
- A esa persona la han manipulado y ha perdido sus propias ideas

  _____

5.- Escribid este pequeño cuento en forma de **problema matemático**. ¡No olvidéis plantear la situación, los datos y formular la pregunta exacta!

_____

_____

_____

_____

_____

_____

_____

_____

_____

ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS:

Leed la situación que aquí se plantea:

"En una granja hay 74 animales, contando todas las vacas y las gallinas. Si las vacas tienen 176 patas, ¿cuántas gallinas hay?

Tratad de escribir juntos un cuento corto a partir de ella. Después, leédselo a vuestros compañeros y compañeras de clase. Os gustará escuchar el de los demás.

2. ERANSKINA

ERREZETA

<u>Irakurri aurretik</u>

1. Aztertu ongi, esku artean dugun testua. Zein izango da tesu honen helburua? Zertarako erabiliko dugu?
2. Testuaren barrenean atal ezberdinak bereiztu ditzakegu? Ze ezberdintasun ikus daitezke?
3. Honelako testurik erabili duzue noizbait, zerbaitetarako? Azaldu.

GAZTA TARTA

OSAGAIAK

1 Jogurt natural
15 jogurt pote irin
2 jogurt pote esne
3 arraultze
1 esnegain likido pote txiki
5 gaztatxo (El Caserio markakoak) edo bestela 8 (La Vaca que Ríe markakoak)

NOLA EGIN

Ontzi batean dena nahastu ondoren, labean sartu ordu bat, tenperatur altuan dagoela.
Ongi egina dagoela jakiteko labana sartu eta garbirik ateratzen bada, gainerre (gratinatu) pixka bat.

Irakurriaren ulermena

1. Aurrean dugun errezetan, osagai ezberdin ugari ageri dira, zuren aburuz zein da osagai nagusia? Zergatik? Zerikusia du nolabait izenburuarekin?

   _____
   _____
   _____
   _____
   _____
   _____
   _____

2. Egizue taula bat eta bertan errezeta egiteko behar diren osagai guztiak, hauen kopurua eta erabili behar diren tresnak ipini.

3. Errezeta honen antzeko bat egin nahi bazenute, non bilatu zenukete?

   _____

4. Badakizue “gainerre” hitzak zer esan nahi duen? Azal ezazue zuen hitzekin.

_____

5. Testuan esaldi hau ageri da, “ Ongi egina dagoela jakiteko, labana sartu”. Zer esan nahi du? Zer ikusiko dugu labana sartzerakoan?

_____

Jarduera osagarria

Aukeratu bien artean asko gustatzen zaizuen janari bat, eta aurreko eredua jarraituz errezeta bat egiten saiatu zaitezte.

Janaria_____

_____

Osagaiak_____

_____

_____

Prozedura_____

_____

_____

3. ERANSKINA

ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA

<u>Irakurri aurretik</u>

1. Aztertu ongi aurrean duzuen testua. Zuen ustez, zein da helburua? Zertarako izan daiteke aproposa?

2. Non ikusi al duzu hori bezalako testu bat edo antzeko?

3. Ba al dakizu zer den aparkatzeko “eremu urdina” hiri batean?

Iturri bibliografikoa: Iruñeako udala

Iturri bibliografikoa: Iruñeako udala

<u>Irakurriaren ulermena</u>

1. Zuen ustez, zenbat zatitan bana daiteke testua? Zer informazio ematen du bakoitzak?

Zatiak	Informazioa

2. Interesatzen bazaizue txartela errekargatzea, zer egin dezakezue ?

_____

_____

3. Tuteratik Iruñera kotxez etorri bazarete, zer egin dezakezue kotxea aparkaleku batean uzteko ordaindu gabe ? Zein izango litzateke hurbilena Noaindik bazatozte ?

_____

_____

_____

_____

4. Beriainera/Noainera joan behar baduzue :

a) Zein billabesa hartuko duzue ? _____

b) Non hartu ahal duzue Leyre kalean bazaudete ?_____

c) Unibertsitate publikora (nup) joan nahi duen pertsona batek, autobus bera hartuko luke ?_____ Zergatik ? Eman arrazoiak_____

_____

5. Eman hiru arrazoi garraio publikoa erabiltzeko zalantzak dituen jende animatzeko :

<u>Jarduera osagarria</u>

Lagun bat Tutera kalean duzue bazkaltzen, arratsaldean Labritera joan nahi du esku pilota partidu bat ikustera, azaldu esaiozue zein den egin behar duen ibilbidea eta zer datorkion hobe billabesa edo oinez joatea.

_____

_____

_____

_____

4. ERANSKINA

LA MUJER PAJARO

Antes de leer…

1. Si nos fijamos en el titulo, de qué nos hablará el texto?
2. Alguna vez has escuchado algo sobre una mujer pájaro?
3. Si no fijamos en el dibujo, qué tipo de texto será el siguiente?
   a. Aventura b. Cómico c. Fantasía

La mujer pájaro

Una vez hubo una niña a la que le salieron alas. Brotaron de sus hombros y al principio eran rudimentarias. Pero crecieron rápidamente, y en muy poco tiempo tuvo alas de una medida considerable. La gente del vecindario estaba horrorizada.

- Se las tenéis que cortar - les decían a su madre y a su padre.
- ¿Por qué? - preguntaban.
- Bueno, es evidente – alegaba la gente.
- No – dijo su madre, y sonó tan rotundo que al final se marcharon.

Pero unas semanas más tarde la gente regresó.

- Si no se las queréis cortar, al menos recortádselas.
- ¿Por qué? - quiso saber el padre.
- Bueno, al menos demuestra que estáis haciendo algo.

- No – contestaron ambos, y la gente se marchó.

Entonces aparecieron por tercera vez.

- Al menos en dos ocasiones nos habéis despachado - informaron a la madre y el padre -, pero pensad en esa niña. ¿Qué estáis haciendo con la pobrecita? - Le estamos enseñando a volar.

Fuente bibliográfica: http://www.materialesparacoeducar.blogspot.com.es/

Comprensión lectora

1. Una vez leído el texto, ¿Que creéis que quiere decir "mujer pájaro"?

_____

_____

_____

2. ¿Por que todos los vecinos querían cortarle las alas a la chica?

_____

_____

_____

3. Si vosotros fuerais los padres de la niña. ¿Que hubierais hecho antes esta situación?

_____

_____

_____

4. ¿Que quieren decir los padres con la frase “le estamos enseñando a volar”?

_____

_____

_____

Actividades complementarias

Imaginar un nuevo final para esa historia, el final que os gustaría que pasase realmente.

_____

_____

_____

_____

_____

5. ERANSKINA

Ballena azul

<u>Antes de leer…</u>

1. Observar atentamente el titulo y el texto. ¿Qué tipo de texto creéis que es el que tenemos entre manos?

a) Una poesía b) Una receta c) Una definición

2. ¿Creéis que la imagen que acompaña al texto, solo es un elemento ilustrativo o nos da algún tipo de información? ¿Cuál?

Ballena azul, es una especie de cetáceo misticeto de la familia Balaenopteridae. Mide entre 24 y 27 m de longitud y pesa entre 100 y 120 t, aunque hay registros de ejemplares de más de 30 m de longitud y más de 190 t de peso, que lo convierten en el mayor animal de la Tierra, no solo en la actualidad sino también el mayor del que se tenga noticia en la Historia.



Largo y estilizado, el cuerpo de este mamífero marino es de color gris azulado a lo largo del dorso y algo más claro en la zona ventral. Existen al menos tres subespecies distintas: *B. m. musculus*, del Atlántico Norte y Pacífico Norte; *B. m. intermedia*, del océano Antártico y la *B. m. brevicauda* (también conocida como ballena azul pigmea), que se encuentra en el Índico y en el Pacífico Sur. Existen dudas sobre la atribución como una cuarta subespecie de la *B. m. indica*, que también se encuentra en el océano Índico. Como otras ballenas barbadas, su dieta consiste principalmente en pequeños crustáceos conocidos como krill.

Fuente bibliográfica: http://es.wikipedia.org/wiki/Balaenoptera_musculus

Comprensión lectora

1. Apuntar todas las palabras que no conozcáis en una tabla, y buscarlas en el diccionario.

Palabra	Significado

2. ¿Por que creéis que hay tantas palabras desconocidas en este texto? ¿Qué tipo de palabras son?

_____

_____

_____

3. ¿Por qué es tan importante la Ballena Azul en la historia?

_____

_____

_____

4. ¿Qué tipo de animal es la Ballena Azul? ¿Qué mas animales de este tipo conocéis?

_____

_____

_____

5. ¿ Cuantos tipos de Ballena Azul diferentes existen?

_____

_____

_____

Actividades complementarias

Colocar en un mapa, los océanos, Atlántico, Pacífico y Índico.